


Herririk Herri | 2 |
Garoiako zentral nuklearra 2009an
ixteko eskatu dau Mallabiko Udalak

Ekonomia | 10 |
Enpresa proiektu kooperatiboak
bultzatzeko lehiaketa antolatu dabe



Amalurra | 22 |
Ingurumenaren Egunean ekitaldi ugari
antolatuko ditue Durangaldean

Aldarazpena onartu dabe EAJ, Aralar eta EBren akordioagaz

Durango• Hainbat inbertsinotarako 3,2 milioi euroko kreditu aldarazpena onartu dau Udalak. Gastu arruntetarako, barriz, 756.500 euro bideratzea adostu dabe. Erabaki hau Aralar eta EBrekin sinatutako hitzarmenaren ondorio dela jakitera emon dau EAJk.

2

Botatzekotan diren etxea okupatu eben martitzenean

Iurreta• Aita San Migel plazako zubi ondoan dagoen eraikina okupatu eben Iurretako Gaztetxea bertan egokitzeko. Gazteek jakitera emon dabenez, Udalak lokal barriak izango ditu bertan, eta eurek "kalean" jarraitzen dabe. Zapatuan Bertso Eguna ospatuko dabe.

6

Musika eskolako taldearen opereta

KULTURA• Bartolome Ertzilla musika eskolako 80 musika eta kantu ikasle San Agustingo oholtzan batuko dira gaur eta bihar, urtebete prestatzen emon daben 'Aitonaren urtebetetzea' opereta egiteko.

13



• **Durango**
Erralde hiltegiaren parte hartu ala ez erabakiko dau Udalak

3

• **Otxandio**
Legutioko urtegiko bidegorria herrira ekarri gura dabe

8

• **Berriz**
Lanpostuak lehiaketara

3

Zinegotzi kargua itziko dau Canalaechevarriak

> Taldeko beste zinegotziek babestu ez eben mozinoari baiezkua emon eutsan

> "Giza eskubideak" politikaren ginetik ipini dituela arrazoitu dau

4



K.Aginako

Herriko talde eta eragile guztiak Tabirakogaz bat

Durango• Tabirako saskibaloi klubak atzo iluntzean antolatutako 50. urtemugaren ospakizunak jentzez lepo bete eban San Agustin kulturunea. Bost hamarkadako ibilbidearen

errepasoa egiteaz gainera, datozen hilabeteetan urteurrena gogora ekartzeko antolatutako ekitaldiak aurkeztu zitueen. Besteak beste, Bruesak eta Bilbao Basketek partidua jokatuko dabe.

21

ETORKIZUNA ZIURTATUTA!!

IURRETA INSTITUTUA

Aurrematrikula zabalik
Ekainaren 1etik 12ra

Praktikak atzerrian egin daitezke

Erdi mailako zikloak • Goi-mailako zikloak • Automozioa • Administrazioa • Elektronika • Fabrikazio mekanikoa • Informatika

Tel.: 944.66.88.00 • www.iurreta-institutua.net • 014950aa@hezkuntza.net

HERRIRIK HERRI >

■ DURANGO



Juan Itziarko auzunean irisgarritasuna hobetzeko hirigintza lanak egin gura ditue; 178.000 euro bideratu ditue. Iban Gorriti

Inbertsinotarako 3,2 milioi adostu ditue EAJ, EB-Berdeak eta Aralarrek

Gastu arrunterako 756.500 euro onartu ditue; horren baitan, hitzarmena ANBOTO astekariagaz

Gobernu Taldeak egindako proposamen “orekatu” eta “arrazoizkoak” aurrera egin dau. Inbertsinotarako 3,2 milioi euroko kreditu aldarazpena lotu dau EAJk, EB-Berdeak eta Aralarrek. Baita gastu arruntari aurre egiteko 756.500 eurokoa be; horretan, ANBOTO astekariagaz hitzarmena bideratzeko atala be jaso dabe. Aldarazpen bien alde egin dabe sozialistek; kontra, barriz, Talde Mistoak. Popularrak, abstenitu egin dira bigarrenean, batzuekin bat ez etorrita.

Errugbi zelaia eta karkabak
Errugbi zelaiko belarra aldatzea (441.000 euro), Juan Itziarko auzunean irisgarritasuna hobetzea (178.000 euro), karkabak egokitzeta (219.000 euro), Landakoko Haurreskola (100.000 euro) eta Tabira eta Ezkurdirako txintxaunak (261.400 euro) batu ditue inbertsinotetan; baita San Faustoko zentro zibikoa (58.000 euro) eta hiltzarako egitasmoa be (30.000 euro). Udaleraikinetara (950.000 euro) eta birpartzelazinoetara (954.460 euro) be bideratu dabe dirua; horreei aurre egiteko Izartu bitartez Jaur-laritzatik jasotako laguntza eta

Errugbi zelaiko belarra aldatuko dabe, Juan Itziarko auzunearen irisgarritasuna hobetu eta karkabak egokitu

ANBOTO eta Plateruenagaz hitzarmena bideratuko dabe, eta, JAED eta Caritasi bideratutako laguntza handitu

Gazteentzat, alokairuan bizitzeko laguntzetara diru gehiago bideratuko dabe eta ludotekarako dirua be bai

Odibakarrek itzitako lurren salmenta (2,34 milioi) be izango ditue.

“Lehenengo pausoa”

“Beharizan handiak” dagozela eta herritarrei irtenbideak emotea dela bere erantzukizuna dino EAJk; aurrera egin behar dela: “Ezin leitekena da lanpostu zerrenda eta aurrekonturik ez egotea leporatu, eta trabak baino ez jartzea. Ez dira onartu, baina barriz saiatuko gara. Albait arinen izatea gura geunke”. Sinatutako akordioa “irtenbideak” eta “erantzunak” emoteko “lehenengo pausoa” ei da: TAOaren eraldaketan eta babesekoen sustapenean be badabilz lanean.

Inbertsino “garrantzitsuokin” aurrera egiteari “gutziz justifikatua” deritzoe EB-Berdeek, aurrekontua gehiengoz ezingo dela onartu irudituta, eta Aralarrek be “gutziz beharrezkoak” diren galetan aldarazpena ahalbideratu behar dela uste dau, eztabaida orokorraren beharra berretsi arren. PPK be “arrazoizkotzat” jo ditu.

“Ezinbesteko eta garrantzitsutzat” jo ditu PSE-EEK be inbertsinook, baina babesekoak, kultur etxea edo Urki-Hegoalde eratzunako egitasmoak eta lanpostuen

zerrenda bota ditue faltan: “Halan be, zoriontzekoa da udalbatzarra arazoak konpontzeko baliatzea”

Talde Mistoak, barriz, ez deritze “irtenbide egokiena” aldarazpenei: “Inbertsino garrantzitsuak dagoz; askoren alde egin dogu, baina bidea ez dira aldarazpenak”. 2007an bideratuta 21 zinegotzitik zazpi liberatuta dagozela dino: “onura ekarriko ei eban, eta urtean 342.000 euroko gastua dakar”; justu urte biotan aurrekonturik ez egoteari aintzat hartzekoa ei da.

Lankidetzat hitzarmenak

Bide beretik jo dabe gastu arrunterako aldarazpena dela-eta: Anboto eta Plateruenagaz hitzarmenak (40.000na euro) eta alokairurako laguntza handitzea (15.000 euro) ez eze, Azterlan (150.000 euro), JAED eta Caritas (30.000 euro), Durango Kirolak (179.000 euro), ludoteka (85.000 euro) eta Astarloa Kulturagintzarako (228.000 euro) dirua be bai. ■ A. B.

Talde Mistoak egin dau aldarazpenen kontra, “bide egokiena ez” dela eritzita

DAZek Alde Zaharreko egoera “ezin eutsizkoa” salatu dau

Alde Zaharrean bizi den egoera “sostengaezina” salatu dau Durangoko Alde Zaharra (DAZ) elkarteak. Baita administrazioaren “itzikeria” be, hainbat gairen inguruan. Hots-kutsadura, ostalaritza-ordutegiak eta gertaera “bandalikoak”, borroka, hiri-altzarien apurketa... aitatu ditue, besteak beste, DAZeko ordezkariak. Hirigune historikoak “bizi dauen alegialitate egoerari” jago-konez, administrazioa “lozorrotik” irten daiten deia luzatu deusie udalbatzarrari.

Administrazioak erakutsitako “itzikeria” be salatu dau DAZ elkarteak

“Alegialitate” egoera dela-eta, “lozorrotik” irtetzerat deitu dabe

DAZeko ordezkariak dinoenez, Zarata Maparako egitasmoan batutako proposamenak ez dira bete: “Eta, ez dakigu gaur egun zein egoeratan dagoen”. Gogoratu dabe, “kasu konkretuetan” oraindino ez dela ostalaritza ordutegia betetzen, eta “gertaera bandalikoek, borrokek, labankadek, hiri-altzari zein autoen atzerako-ispilu hondatzeek zein etenik bako garbitasun araudiaren urratzeek” lehen-goan jarraitzen dabela. ■ A. B.

Igerilekuetako taberna kudeatzeko deialdia

Tabirako Udal Igerilekuetako taberna kudeatzeko deialdia zabaldu dau, dagoeneko, Udalak. Horren ardura hartu gura dauenak Udalean dauka eskura informazio guztia. Halan jakin eragin dabe udal arduradunek. Lehenengo solairuan dagoz agiri guztiak, ekainaren 8a bitartean.

Ekainaren 15ean zabalduko ditue Tabirako kanpoko igerilekuak. Udako igerilekuko denporaldiak irailaren 15a bitartean iraungo dau. ■ A. B.

Udaletxeko lehenengo pisuan dago informazio guztia eskuragai, ekainaren 8a bitartean



Erralde hiltegiari buruz erabakia hartuko dau udalbatzarrak

Aralarrek aurkeztutako mozinoaren alde egin dabe talde guztiek, alderdi jeltzaleak izan ezik

Martxan jarritako egitasmoaren gorabeherak azaldu daiezen Ogasun Batzordera gonbidatuko ditu Udalak Erralde hiltetik kudeatzaileak. Durango proiektu horretan sartuko den ala ez erabakiz diktatzena altxatzeko eta hori hurrengo osoko bilkurara eramateko konpromisoa hartu dau udalbatzarrak, Aralarrek aurkeztutako mozinoa onartuta. EAJ izan ezik gainerako taldeek egin dabe alde. Aralarren berbetan, “abeltzain, harakin eta kontsumitzaileei eragiten deuten eredu soziala” dago mahai gainean. Bai ekonomikoki bai kokapenari jagokonez, proposamen “bideragarria” dela dino, eta 15 udalek parte hartzen dabela. Zalantzak argitu eta erabakia hartzea da helburua.

Informazioa eskatu dabe EB-Berdeek Udalak egitasmoazertan datzan eta zer suposatzen dauen jakiteko “betebeharra” daukala dino, eta PSE-EEK “orain arte lez” Erralderen alde egiteko asmoa daukiela. Talde Mistoa be Erral-

deren kudeaketa sistemagaz eta jasotako eskaerekin bat dator. PP be bai, baina hainbaten gonbidatu ditueela gogoratu dau, eta “informazio gehiago” eskatu dau: bideragarritasun ekonomikoa, ekarpen ekonomikoaren banaketa... Eskaera horregaz bat dator EAJ: “12 bat milioiko inbertsinoa ei da, baina, ez dakigu udal bakotxari zenbat jagokon. Zalantza asko dagoz, eta gagozen egoeran ezin dogu putzu beltz horretan sartu”. ■ A.B.

Erraldeko kudeatzaileak Ogasun Batzordera gonbidatuko ditue eta horren haritik erabakia hartu

EAJk egin dau kontra: “Asko dira zalantzak, eta gagozen egoeran ezin dogu putzu beltz horretan sartu”

IZURTZA

Lehenengo lehiaketara ia 30 argazki aurkeztu ditue

Joan zen astean orrialdeotan errakuntza baten ondorioz jaso genduen moduan barik, astean ezipadaze ekainaren 13an banatuko ditue Izurtzan lehenengoz antolatutaben argazki lehiaketako sariak. Lehenengo edizinoia dela kontuan izanda, lehiaketak izan dauen parte-hartzeagaz, batez be, oso pozik agertu dira antolatzaileak: guztira, 29 izan dira lehiaketara

aurkeztu ditueen Izurtzari buruzko argazkiak. Argazkigile gehienek hiru argazki bidali ditue. Baina, edozeren gainetik, aurkeztutako lanen kalitatea da antolatzaileek bereziki nabarmendu dabena. Durangaldeko parte-hartzaileek eta herriko batek be bidali ditue euren lanak, eta ekainaren 13an Udaletxean egingo dabe sari-banaketa ekitaldia. ■ I.E.

BERRIZ



Lehiaketa publikoan ipinitako 11 lanpostuetatik bost garbiketa publikoan jarduteko dira.

11 lanpostu finko lehiaketa publikoan ipini ditu Udalak

Ekainaren 15etik, Udaletxean eskuragarri egongo dira lanpostuen gaineko oinarriak; irailaren 28tik aurrera 20 egun dagoz eskariak aurkezteko

Berrizko Udalak 11 lanpostu onartu ditu Lan Eskaintza Publikoan. Guztiak lanpostu finkoak dira eta oposaketa bitartez emongo ditue. Lanengaineko zehaztasunak Udaletxean jaso daitekez, ekainaren 15etik aurrera; ondoren, irailaren 28an hasi eta 20 egun naturaletan (urriaren 16a arte) eskariak aurkezteko epea zabalduko dabe. Lanpostu bi karreradun funtziontzarako dira: gizon eta emakumeen arteko berdintasun, lan eta gazteri teknikaria, eta, administrari laguntzailea. Lehenengoan derrigorrezko baldintza dira diplomatua izatea eta euskaraz

hirugarren mailako perfila izatea. Administrari laguntzaile lanak eskola-graduatu eta euskaraz bigarren maila eskatzen ditu. Beste lanpostuak langile laboral finkoak dira: eginkizun askotako langilea (bi lanpostu), peoia, garbiketa langilea (bost lanpostu) eta begirale-soroslea. Peoi eta garbiketa langile lanpostuek eskola-ziurtagiria eta lehen mailako euskara eskatzen dabe. Eginkizun askotako langile postua lortzeko eskola-ziurtagiria ez eze bigarren mailako euskara maila behar da. Maila bera behar da begirale-sorosle lanetarako, eta titulu homologatua be bai.

Oposaketak gaintitu arren lanpostu finkoa lortzen ez dabenak, lan-poltsan sartuko ditue. Udal arduradunen esanetan, politikariek azkenengoz parte hartu dabe lanpostuen aukeraketan eta oinarrien eraketan. Aurrerantzean, teknikariak eta langileen zein administrazioaren ordezkariak hartuko dabe ardura. ■ J.D.

Oposaketak gaintitu arren, lanpostu finkoa lortzen ez daben guztiak Udaleko lan-poltsan sartu ditue

JUAN BERRISTAIN

NEKAZAL TRESNAK

Salmenta eta konponketa

PASQUALI

HONDA
STIHL
SAME
BCS
CARON
VIKING

Oidor Berriozabalbeitia, 14 • 48230 Elorrio (Bizkaia) • Tel-Faxa: 94 623 18 03

ABADIÑO

Dimisinoa aurkeztuko dau Canalaechevarria zinegotziak

“Giza eskubideak” babestea delako eskatu eban Zarrabeitia herriratzea

Herritar talde batek maiatzaren 26an aurkeztu eban, udalbatzarrean, “Eneko Zarrabeitia preso politikoaren herriratzea” eskatzen eban moizino. Talde Independentetako gainerako zinegotzietz bezala moizinoaren aldeko botoa emotera—eta moizinoaren onartzea bideratzeraz— zerk eroan eban azaldu eta

Kideek taldean jarraitzea proposatu deusien arren, zinegotzi kargua iztea erabaki dau Canalaechevarriak

dimisinoa aurkezteko agerraldia egin dau Luis Miguel Canalaechevarriak. Independenteen “Udalaz gaindiko arazoetan abstenitzeko” filosofiaren kontra, bere ustez “giza eskubideei buruzko moizino bat zenari” baiezkota emonda, eskubide horrekin ipini zituela politikaren gainetik dino.

“Min handia egin neutsan taldeari”, azpimarratu dau Canalaechevarriak, eta kideek taldean jarraitzea proposatu arren dimittitu egingo dauela aurreratu dau.

Mozinoaren alde bozkatzeko sakon hausnartutako erabakia zela azpimarratu eta Gandhiren

esaldia gogora ekarri dau Luis Miguel Canalaechevarriak: “Bidegabeko legeak ez betetzeko eginak dagoz”. ■ I.E.



Agility Ligako froga puntuagarri bi jokatu zitueen Traña-Matienan



Kepa Aginako

Madril, Gaztela eta Leon, Kantabria, Gaztela-Mantxa eta Sevillatik etorritakoak, eta Zaldibarren bizi den Axular Castillo euren txakurrei Agility frogak ahalik eta

denpora gitxienean igarotzeko jarraibideak emoten izan ziren asteburuan, Abadiñon.

Zapatuan izan zen proba puntuagarrian lehenengo pos-

tua lortu eban Axular Casadok, Arin txakurragaz, eta bigarren postua eskuratu eban domekako saioan, Tami izeneko hiru urteko txakurragaz. ■ I.E.

Herritarren Foroa sortzea onartu dabe, aho batez

Hirigintzari buruz herritarrek ditueen eritzi eta aportazioak bilduko ditue erakunde horretan

Aho batez onartu eben azken udalbatzarrean, Navarro alkaterearen berbetan, “Lurzoruaren Legeak agintzen dauen baldintza betetzeko erakunde barria sortzea”. Hirigintzaren inguruko eritzi eta aportazioak jasoko dira foro horretan, eta herriko elkarteetan dagoen herritarrek osatuko dabe erakundea.

Batzordean lortutako adostasuna berrestea izan zen udalbatzarrean egin ebena, eta alderdi guztiek bozkatu eben alde.

“Udal dinamika herritarrei zabaltzeko aukera izan leitekeelakoan” emon eban ezker aber-

tzaleak aldeko botoa, “positiboa izan leitekeelakoan”.

Alde bozkatu arren, zera azpimarratu eban Araitx Basauri zinegotziak: “Gobernuak filosofia honetan ez dau sinesten”. “Lurzoruaren Legeak exigitzen dituen filtroak pasatu eta interes inmobiliarioei men egiten jarraitzea da euren asmoa”, adierazo eban ezker abertzaleak. ■ I.E.

Batzordean lortutako adostasuna berretsi eben hiru alderdiek plenoan

ELORRIO

Ondare Ibilbideak erraz ulertzeko moduko informazinoa

Elorrioko ondasun historiko eta kulturalak ezagutzera emotea helburu dauen Ondare Ibilbidea urrirako prest gura dabe, eta ildo horretako lan bi esleitu zitueen joan zen astean. Batetik, Ondare Ibilbidea egin gura dauenak audio-gidak erabili ahaliko ditu.

Peru Magdalena eta Ander Garaizabalek sortuko dabe gidako istorioa

Hizkuntza askotan emongo den informazinoa modu zurrunean baino, ulertzeko erraz emongura dabe; ipuin bat izango balitz legez. Istorio hori sortzeko ardurar Peru Magdalenak eta Ander Garaizabalek izango dabe. Gainera, informazinoa eskuragarri egongo da Elorrioko webgunean.

Bestalde, jakinarazi dabeenez, audio-gida iPod formatuan eskainiko dabe. Horrez gainera, bluetooth-a beizango dau; horrela, mugikorrera deskargatu ahaliko da informazinoa. ■ J.D.

ATXONDO

Kirola egiteko makinak ipini ditue bide-gorria hasten den tokian

Ziarreta auzoa urbanizatzeko eginen dabilzen lanetan dihardueela aprobetxatuta ipini ditue, oinezkoendako bidea hasten den lekuan, batez be jente nagusiarendako aproposa den kirola egiteko makinaren zirkuitua. Bidegorriaren inguruar leku aproposa eritzi deusie kirola egiteko zirkuitua ipintzeko, oinezkoendako bidea berez delako haizetara ariketa egiteko leku egokia. Jenteak gogotsu hartu ei dau ideia; arrakasta edukitzen dabilela esan deuskue Udalean.

Askotariko ariketa fisikoak egiteko baliatu leitekezen makinak osatzen dabe oinezkoen bidea abiatzen den puntuan ipini daben zirkuitua: besteak beste, arraunketa modukoa egiteko eta luzaketak egiteko baliatu leitekezenak dira makinak. ■ I.E.

Besteak beste, luzaketak eta arraunketa simulatzeko baliatu leitekezen makinak dira ipini ditueenak



Izenematea
Ekainaren 1etik 12ra
Matrikulazioa
Ekainaren 29tik uztailaren 3ra

ESKAINITZA AKADEMIKOA

MGEP	ETEO
• Erregulazio eta Kontrol Sistema Automatikoak	• Administrazioa eta Finantzak
• Informatika Sistemen Administrazioa	• Idazkaritza
• Proiektu Mekanikoen Garapena	• Merkataritza Kudeaketa eta Marketigna
• Mekanizazio Bidezko Produktzioa	
• Industri Ekipoaren Mantentimendua	

www.mondragon.edu/gep www.eteo.mondragon.edu



Narru Jatetxea

San Agustin 22, Elorrio
Tel.: 94 658 49 34

Gosariak goizeko 8:00etatik.
Pintxoak. Eguneko menua.
Menu bereziak. Kartan, aukerako
okelak txingarretan.



Betixu Jatetxea

Iturburu, 9 Iurreta
Tel.: 94 681 78 47

Astelehenetan itxita. Janariak
jantokian: asteartetik igandera.
Afariak jantokian: ostegunetik
larunbatera. Razioak terrazan.



Pedro Juan

San Antonio, 1 Berriz
Tel.: 94 682 62 46

Eguneko menua.
Karta.
Domeka, astelehena eta
martitzen gabaz itxita.



Plateruena kafe antzokia

Landako etorbidea 4-a
Tel.: 94 603 03 00

Eguneko menua astelehenetik
zapatura.
Taldeentzako menu adostuak.
Merendolak.

Jatetxe
gida



Zaldibarko Batzokia

Arangoiti 5, Zaldibar
Tel.: 94 682 78 14

Eguneko menua. Karta.
Gosariak. Razioak eta kazuelitak.
Ospakizunak.
Astelehenetik igandera zabalik.



Juliantxu Jatetxea

Iturriza 2, Berriz
Tel.: 94 682 40 77

Karta.
Txuleta errea.
75 lagunentzako jangela.



Kanpazar Erreategia

Kanpazar gaina, Elorrio
Tel.: 94 658 29 12

08:00etatik 23:00etara zabalik.
Astelehen eta astearte gauetz itxita.
Astelehenetik ostiralera eguneko
menua 11€

Hemen agertu
gura
badozu,

DEITU

94 621 79 02

DIURRETA

Botatzeko asmotan diren etxea okupatu eben martitzenean

Ondoren okupazioaren zergaitia zehazten eban informazioa ipini eben herriko etxe atarietan

Aita San Migel plazako oinezkoen zubiaren ondoan dagoen eraikina okupatu eben, martitzen arratsaldean, 40 bat gaztek, Iurretako Gaztetxe lege egokitzeko. 20:30 inguruan sartu, *Herri bat Gaztetxe bat; Gora Iurretako Gazte Asanblada* dinon kartela balkoitik eskegi eta atea oholekin zarratu eben, barruan lau-bost lagun geratu zirelarik.

Udalak oraintsu hasi ditu plaza handitzeko eta erabarritzeko lanak, eta okupatutako etxea botatzeari aurreikusi dau proiektuak. Gazteek adierazi ebenez, eurak ateratzera etorri zirela gero, euren

“Etxe barrietan Udalak lokalak edukiko ditu eta guk kalean darraigu. Okupazioa beste aukerarik ez deuskue itzi”

asmoa “azkeneraino erresistentzia” jartzea da: “Plaza eraberritzea onuragarria da, baina etxe barriak eginda hainbat lokal Udalaren jabetzara pasatuko dira, eta guk kalean jarraitzen dogu”. “Hau da izten deuskuen aukera bakarra”, aitatu eben Iurretako Gazte Asanbladako gazteek.

Herriari jakinarazten

Orduerdia baino lehenago amaitu zuten okupazioa. Ondoren, aurrera eroandako ekintzaren zergaitia jakinarazten dauen oharra ipini eben Iurretako portal guztietan. Jakinarazi ebenez, Ertzaintzak irtenarazten baditu, bihar 12:00etan, Bertso Eguneko ekitaldiak hasi aurretik, manifestazioa egingo dabe, protesta moduan.

2007an huts elektriko batek eragindako suak erre egin eban Abadetxea, Iurretako Gaztetxe barik



Atea oholekin itxi eta Gaztetxearen aldeko pankarta eskegi eben balkoitik. Kepa Aginako

itziz; Abadetxean, beste hainbat elkarte be bazegozen. Harrezkero, atzokoaz gainera, beste hiru lokal okupatu ditue.

Bestalde, Gure Barik Gaztetxe-ko bertso eskolak biharko Bertso Eguna antolatu dau. Eguerdian tri-

Biharko Bertso Egunean Miren Amuriza, Gorka Lazkano, Aitzol Barandiaran eta Xabier Enbeitak ariko dira kantari

kipotea egingo dabe, eta 14:30ean bazkaria. 17:00etan bertso saioa eskainiko dabe Aitzol Barandiaran, Miren Amuriza, Gorka Lazkano eta Xabier Enbeitak. 20:00etan Petite&Konpanirekin karaokea, eta ondoren erromeria. ■ J.D.

1,1 milioi euro Goiuriko bidegurutzeari aldatzeko

Bizkaiko Foru Aldundiak egin beharreko lanak abuztura orduko hastea aurreikusi dau Udalak

Goiuriko bidegurutzeari ordezteko Bizkaiko Foru Aldundiak landutako egitasmoa onartu dau udalbatzarrek. N-634 errepide nagusiaren eta BI-3341 errepidearen elkargunean biribilgunea jartzea batzen dau proiektu horrek, orain dagoen semaforoak kenduta, eta horretarako 1,1 milioi euroko aurrekontua aurreikusi dabe. Halan azaldu dau Iñaki Totorikaguena alkateak. Lanak, barriz, abuztua baino lehenago hasiko direla uste dabe: “Lanak atzeratu egin dira; hasita behar leukie. Baina, aurten amaitzea itxaroten dogu, tramitazioaren arabera izango den arren”.

Bai Goiurirako zirkulazioa bai N-634 errepidekoa “arindu”

gura dabe biribilgunea eginda, Bilborako zein Donostiarako irteerak erraztuz. Behin hasita, lanek lau edo bost hile irautea aurreikusi dau udalarduradun nagusiak. “Oso positibotzat” jo ditu alkateak lanak: “Beti pentsau izan dogu bidegurutze hori aldatu beharra dagoela. Herri barruko trafikoari jagokonez be asko erraztuko da zirkulazioa”. ■ A. B.

Goiurirako zirkulazioa zein N-634 errepidekoa “arinduko” daben lanak lau edo bost hile irautea aurreikusi dabe

MALLABIA

Garoñako zentrala 2009an ixteko eskatu dau Udalak

Joan zen asteko udalbatzarrean Eguzki talde ekologistaren proposamena onartu egin eben

Eguzki talde ekologista antinuklearrak egindako eskariagaz bat eginez, Garoñako zentral nuklearra ixtearen aldeko mozinoa onartu eban Udalak joan zen astean egindako batzarrean. 2009ko uztailaren zentralari behin-behineko ustiapen baimena amaitzen jakonez, baimen hori “ez luzatzea” da eskatzen dabena.

Aitor Loiola alkatearen berbatan, energia nuklearrak “badauka alternatibarik”. Adibide lege, Nafarroan kontsumitzen den energiaren %65 barriztagarria dela gogorarazto dau Loiolak. Mozinoa onartuta, Udalak hain-

bat konpromiso hartu ditu. Herriko sarrera eta irteeretan ‘Inguru ez-nuklearra’ dinoen seinaleak jarriko ditue. Udalak kontsumi-

Udalaren eta herritarren energia kontsumoa txikitzea izango dabe helburu

tzen dauen energiaren efizientzia %20 igon beharko dau 2020rako. Herritarrek energia kontsumoa txikitzeko kanpaina martxan jarriko dabe. Energia barriztagarrien gaian be jardungo dabe. ■ P. M.

Tren-katenaria indartzeko, lurren desjabetuak deitu ditu Jaurlaritzak

Bilbo-Donostia trenbidean Mallabiko traktzio-linearako azpiestazio elektriko eraikiko dabe. Proiektu hori martxan jartzeko behar dituen lurren jabeak aktak sinatzeko deitu ditu Jaurlaritzak, ekainaren 26rako. “Trenak maizago jartzeko” eta “instalazioak modernizatzen” katenaria indartzeko beharrezkoa dela dino Jaurlaritzak.

Trenbidea bibidertuko dabela aprobetxatuta, Mallabarran geltokia egitea proposatu dau Udalak. “Udabarrian lurak aztertzen ibili dira, baina oraingoz ez daukagu proiektu horri buruzko informazio gehiagorik”, dino alkateak. ■ P.M.

GALDERA:

Durango zer saskibaloit taldek bete ditu 50 urte?

Izena: _____

Tel.: _____

Makatzeta jabetzerako lagun birendako afari-txartela zotz egingo dogu.

Bialdu erantzunak: Santa Ana, 6 Durango edo asteleku@anboto.org helbideetara, Hiruaren azken alean agertuko da irabazlea.



Hileko irabazlea: Arrate Miguel (Durango)





■ ZALDIBAR

Gatzagako bide zaharra eta uraren sarea konpondu egingo ditue

Datozen asteetan hasiko ditue bide zaharra esaten deutsiena konpontzeko lanak Gatzagan

Aurtengo aurrekontuek jasotzen ditueen proiektuen artean diru atal handienetarikoa jasoko dabenetari-koak dira uda honetan Gatzaga auzoan hastear dagozen lanak. Maiatzeko azkenengo aste-ko udalbatzarrean aho batez onar-tu dabe Udalean ordezkari-tza daukien alderdiek Urkitzatik Gatzagara doan bide zaharra (kilometro bateko luzerakoa) kon-pontzea jasotzen dauen proiektua. Idoia Mendiogarai alka-teak nabarmendu dauenez, “kon-

“Helburua ez da bidea edozelako ibilgailuak igarotzeko konpontzea, oinezkoendako baizik”

Gatzagako bide zaharra eta ur-hornidurarako sarea konpontzeko 600.000 euro bideratuko ditue guztira

Alegazinoak etxebizitza tasatuen ordenantzari

Udalak etxebizitza tasatuak erai-kitzeari lehentasuna emotearen kontra dagoela adierazo eta pre-zio tasatuko etxebizitzak eta udal etxebizitza tasatuak arautzen dituen udal ordenantzari alegazi-noak aurkeztu deusazezker aber-tzaleak: etxebizitza tasatu bat esku-ratu ahal izateko, besteak beste, eskatzaileak etxebizitza beharra frogatu behar dauela eta herrian erroldatuta egon behar dauela jasotzen dau Eusko Jaur-laritzaren Lurzoruaren Legeak, ezker aber-tzaleak nabarmendu dauenez.

Joan zen astean amaitu zen udalbatzarrak aho batez onartu eban etxebizitza tasatuen orde-nantzaren aldaketari alegazinoak egiteko epea, eta, Eusko Jaur-laritzak eta herriko ezker abertzaleak egin ditue alegazinoak. Mendio-lagaraik, “geldi zegoen salmenta apur bat mogitzen” dabilela, eta eskariak jasotzen hasi direla dino.

Joan zen astera arte egin ahal izan jakoz Udalean onartutako etxebizitza tasatuen ordenantzari alegazinoak

■ MAÑARIA



Ez da prestaketa berezirik behar, baina ibilbideak badauka bere zailtasuna.

Marko eta Askondo leizeak bisitatuko ditue GEMAgaz

Urkiolako Parke Naturala ezagutu eta espeleologian barneratzeko zita

Urkiolako Parke Naturaleko koba-zuloetan barneratu eta espeleo-logia ezagutzeko aukera izango da domeka honetan. Gema taldearen gidaritzapean burutuko dabe Marko eta Askondo leizeak hel-muga izango dituen irteera.

Goizeko 10:00etan egin dabe Mañariko plazan hitzordua. Kobazuloen ezaugarriak direla-eta, 20 lagunetik beherako taldea abiatuko da mendira, eta 16 urte-tik gorakoak izan beharko dabe parte-hartzaile guztiek.

Parte hartzeko prestaketa berezirik behar ez arren, antola-tzaileek argitu dabenez, ibilbi-deak badauka zailtasun apur bat. Hain zuzen be, punturik gatxe-nak haitzulora heldu aurreko bidea eta bertan, barruan, dagoen aldapa labainkorra dira.

Herritarrek atsegin eta gaitzesten dabenaren isla

Mañariarrek euren botoekin aukeratutako sariak dira Iñigo Andres eta Bioleta Ikobaltzeta Argazki Lehiaketako bi irabazlee-nak. Bakotxak 100 euroko saria jaso dau, mañariarrek euren argazkiak aukeratu ditueelako.

Iñigo Andresen argazki sari-tua, ‘Mañariatik gitxiengustatzen jatana’ sailean saritu dabe, eta *Irisgarritasuna eta Mugikortasuna* noizko? izena dauka.

Herritik gehien gustatzen jakona gainerako herritarren ustez ondoen islatu dauena, barriz, Bioleta Ikobaltzetaren *Negu hotzaren mirariak* lana da.

Epaimahaiak erabakitako sariak, bestalde, Leire Solagu-ren eta Kontxi Ikobaltzetarend-a-ko izan dira aurtien. ■ I.E.

ponketaren helburua ez da edo-zelako ibilgailuak igaro ahal izateko moldatzea; batez be, oinez-koendako egokitzeak dira lanak”. Aurrekontua 300.000 eurokoa da.

Horregaz batera koordinatu-ta egingo ditue Gatzaga auzoko ur-hornidura sarean egin beharreko lanak be. Lan honek burutzeko beste 300.000 euro inguruko aurre-kontua izango dabe.

Konponketa bi horreek, Men-diogarai jeltzaleak azaldu daue-nez, auzoetako argiterian eta abar egiten dabilzen hobekuntzen par-te dira, eta ondorengo urteetan beste auzo batzuetan egingo ei ditue orain Gatzagan egingo ditue-n antzeko barriztatzeak.

Batzordeen moldaketak

Udaleko batzordeetan hainbat aldaketa egitea aho batez onartu eban joan zen barikuko udalbatza-rean: Euskara eta Kultura Batzor-dea bateratu egin ditue, eta Nerea Garitaonandia izango da lehenda-karia. Hezkuntza batzordearen lehendakari Mendiogarai alka-tea izango da aurrerantzean. ■ I.E.

■ GARAI

Dantza taldeen hartu-emonaren urtemuga ospagai Lantziegon

Garaiko eta Lantziegoko dantza taldeen arteko hartu-emonak 25 urte bete ditu, eta hori ospatze-ko jaia egingo dabe uztailaren 4an, Lantziegon. Bertara joan gura dauenak, izena emon behar dau Udaletxean, ekainaren 10a baino lehenago.

Lantziegora joan gura dauenak, izena emon behar dau hilaren 10a orduko

Bilboko dantza jaialdi batean ezagutu eban elkar bi tal-deek, orain dela 25 urte. Geroztik, hartu-emona mantendu dabe urtez urte, herriko jaietan elkar-trukea eginez. Aurtengoa data berezia dela-eta, joan-eto-rriko ekimena prestatuko dabe, lehenengo zatia Lantziegon burutuz, uztailaren 4an; bertan, kalejira eta bazkaria izango ditue, besteak beste.

Lantziegoko dantzariak urte amaiera baino lehenago etorri-ko dira Garaira, ekimenari amaie-ra emonez. ■ M.O.

Durangaldeko Behargintza

Eskualdeko Garapen Agentzia
Agencia Comarcal de Desarrollo

ENPRESAREN KUDEAKETA OROKORRA

Enpresa berri bat sortzeko asmoa dutenei zuzendua

HELBURUA: Durangaldean enpresa berriak sortu.

EDUKIAK: -Arloak: Merkataritza, Fiskalitatea, Lan-harremanak, Finantzak, Administrazioa eta Kudeaketa

- Enpresa sortu eta merkatuan finkatzeko finantza-tresnak
- Kooperatibak eta Lan Sozietateak.

IRAUPENA: 2009ko ekainaren 22tik uztailaren 2ra (28 ordu)

ORDUTEGIA: Astelehenetik ostegunera 16:00etatik 19:30 arte.

TOKIA: Durangaldeko Behargintza

IZENA EMATEKO EPEA: 2009ko ekainaren 19a arte.

Durangaldeko Behargintza

Laubideta, 6 Durango tf: 94 623 25 22

Ordutegia: astelehenetik ostirakera 08:00etatik 15:00etara

www.amankomunazgoa.com

OTXANDIO

Urtegiko bidegorria Oleta eta Mekoletaraino luzatu gura dabe

Bidegorriaren aurreproiektua egiteko diru-laguntza eskatu dau Udalak



Aurreproiektuan bidegorriaren ezaugarriak zehaztu gurako leukez Udalak. Judit Fernandez

Arabako Foru Aldundiak Legutioko urtegi ondotik eraikiko dauen bidegorria Oleta eta Mekoletara zabaldu daiten gura dauela azaldu dau Udalak. Aldundiak turismoa indarbarritzeko emoten dituen diru-laguntzei erantzunez, bidegorri zati horren aurreproiektua egiteko 60.000 euroko eskaera egitea erabaki dau Udalak.

Egitasmo hori onartu eta finantziatzina topatuz gero, Legutioko urtegi ondotik Urkiolako

Legutioko urtegi ondoko bidegorria Oleta eta Mekoletara luzatzeko aurreproiektua egin gura dabe

Bidegorri barri horrek Legutioko urtegia eta Urkiolako Parke Naturala lotuko leukez

Parke Naturalerainoko bidegorria eraikiko litzatekela azaldu dau Aritz Otxandiano alkateak.

San Martin

Diru-laguntza eskaera horregaz batera, 145.000 euroko aurrekontuagaz San Martin ermitaren ingurua konpontzeko proiektua be aurkeztu dabe. Baselizako sarrera eta ondoko bolatokia atontzea da egitasmoaren helburua. Ondokolursaila erosita, Udalak pagadia handitu gura dau. ■ J.G.

OTXANDIO

Jai giroa nagusi Mekoletan

Gazte Itzal eta Skovers taldeek eskainitako kontzertuagaz hasiko ditue, gaur, San Bernabe jaiak Otxandioko Mekoleta auzoan. Jai giroa nagusituko da egunotan. Urduri dantza taldearen saioagaz abiatuko dira zapatutako antolatutako ekitaldiak, eta dantza ekitaldia amaituta Elvi sabeliztunak jardungo dau. Ez Dok Hiru-Bikoteatroaren *Euskarazetamol* antzerki ikuskizunaz gozatzeko aukera be izango dabe bertaratuko direnek.

Balerdi Erdi eta Bizardunak taldeek kontzertua emon aurretik, IV. Bertso Baserri bira izango da, zapatuan, Mekoletan. Ekainaren 11 da San Bernabe Eguna. Jai Batzordeak antolatuta, meza eta luntxa izango dira 13:00etan, eta 17:00etan briska eta mus txapelketak.

DURANGO

Jesús María Pedrosa hil ebeneko 9. urteurrena gogoratu dabe

ETak Jesús María Pedrosa hil ebalu bederatzirte direla gogoratu eben San Antonio komentuan atzo. 11:00etan hasizenez meza ondoren, lore eskaintza egin eutsien kanposantuan, Pedrosaren hilobiaren ondoan. Mezan eta ondorengo ekitaldian egon ziren Pedrosaren emaztea, bere alaba biak, senide eta lagunak, eta hainbat kargu publiko: Antonio Basagoiti EAEko PPren lehendakaria, Anton Danborenea Bizkaiko PPren lehendakari orokorra eta Esther Martínez Bizkaiko PPren idazkaria. Durangoko Udaleko PPko zinegotziak be hantxe izan ziren.

DURANGALDEA

Gazteriaren bilgune izan guran aurkeztu dabe Iratzarri

Durangaldeko Iratzarri aurkeztu dabe, asteon, Bizkaiko arduradun Iraide Sanchez, eskualdeko koordinatzaile Markel Ganboak eta Aralarreko Durangoko zinegotzi Iker Urkizak. “Durangaldeko arazoei ezkerretik aurre egiteko” sortu zen Iratzarri 2004an, “kolore guztietako gazte ezkertiar eta independientek batuz eskualdeko Aralarren gazte erreferentea”. Desobediencia zibila erabiliz egungotik bestelakoa izango den sistema sortu gura dabe eta gazteriaren bilgunea izan, “eztabaida sustatu eta suspertuz”. Asanblearismoaren aldekoa da Iratzarri, dinoenez, eta mogimendu sozialetan sinesten dabe.



Iniziatiba Internazionalistaren ekintzak Abadiño eta Elorrion

Europako hauteskundeetarako botoa emotera deituta dagoz herritarrak domekan. Alderdiak azken orduak ditue boto-emoleak erakartzeko. Iniziatiba Internazionalistak berbaldia antolatu eban, atzo, Arriola antzokian. Maiatzaren 29an, Abadiñon afaria be egin eben; Probalekuan elkartu ziren 150 lagun inguru. Europako hauteskundearen gainean jardun eban Julen Aginakok aurretik, eta afalostean Miren Amuriza, Gorka Lazkano eta Eneko Abasolo “Abarkas” bertsolariek jardun eben.



Gazte Asanblada eta Gaztetxeen jaiak makina bat lagun bildu zituen

Eskualdeko gaztetxe eta gazte asanbladen jaia Durangaldeko hainbat gazteren topagune izan zen joan zen zapatuan.

Gaztetxeen defentsan eta AHTaren aurka goiburugaz egun osoko egitaraua prestatu eben. Antolatzaileek jakitera emon dabenez orain lau urte eskualdeko Gaztetxeak batzen hasi ziren, ekimen bateratuak martxan jartzeko asmoz. Urte hasieran Elorrioko kaleetan abiatu eben *Partida ez da bukatu* kanpainari amaiera emon eutsien zapatuan Otxandion.



BERBAZ >

“Borondatezko lana bultzatzen jarraitzea da gure lorpenik handiena”

Tabirakoren 50. urtemugako egitarauak saskibaloiairen hiriburu bihurtuko dau Durango datozen hilabeteetan



Iban Gorriti

Hilario Pérez •

- Tabirakoko lehendakaria
- Bederatzi urte daroaz taldeko zuzendaritzan

Tabirako saskibaloia talde bat baino gehiago da Durangon. Bost hamarkadatan kirol arloan lortutakoari baino, pertsonen emoten deuseela garrantzia azaldu deusku Hilario Pérez taldeko lehendakariak. Aurretik zuzendaritzan ziharduen arren, duela urte bi hartu eban taldeko buru izateko ardura. Urteurrenari buruz galdetu gura izan deusagu.

Zelan antolatu dozu urtemuga?

Ilusino eta ardura handiagaz hartu dogu urteurrena. Egitarau zabala antolatuko dogu urte osoan zehar. Antolaketa lanetarako taldeko lehendakari ohiekin batzordea sortu dogu.

Atzo San Agustinen antolatu zenuen jaialdian babes handia jaso zenuen.

Tabirako herriko eta herriarendako taldea denez, inguruko elkarte eta eragileekin jaialdi baten elkartu gura izan dogu. Durangoko komunikabide, kirol eta kultur arloko elkarteak, udal arduradun eta babesleak... gonbidatu genduzen atzoko ekitaldira. Oso pozik gagoz, San Agustin jentetz gainezka ikusi genduelako. Federazioetako, Iurbentia eta Bruesako jentea be etorri zen, eta arbitroak be bai.

Zelan sortu zen taldea?

1960-1961 urteko denboraldian saskibaloian jokatu gura eban lagun batzuk Basilio Arana lehenengo presidenteari taldea sortzeko asmoa agertu eutsien. Hasiera haretan talde bakarragaz martxan jarri eban.

Zelako garapena izan dau?

Ikastetxeekin elkarlanean jarraitu genduen. Lehenengo Jesuitetan eta geroago gainerakoetan. Jesuitak, Nevers, Kurutziaga ikastola, San Antonio-Santa Rita, Fray Juan de Zumarraga Institutua eta Landako. Ikastetxe horreek osatzen dabe gure harrobia.

Noiz sortu zen lehenengo nesken taldea?

1973-1974 denboraldian nesken lehenengo taldea sortu genduen. Rafa Zabala 'Zipi' izan zen talde haretako entre-

natzailea. Gaur egun, mutilak baino gehiago dira neskak. Lehendakartzatik Kirol Saria 2008 jaso genduen bardintasunaren atalean.

Tabirakok zenbat lagun batzen ditu saskibaloiairen inguruan?

50 talde daukaguz; 700 jokalar. Gure masa sozialak 2.000 lagun mogitzen ditu.

Tabirakon borondatezko lana bultzatzen dozu.

Mundu guztiak borondatez diihardu. Doan jasotzen doguna doan emoten dogu. Jokalari bat entrenatzailea be izan leiteke. Zuzendaritzakoak be bolondresak dira. Urte honeetan filosofia hori mantentzea da Tabirakoren dauen lorpen handiena. Kluba pertsonen gainetik dago.

Borondatezko lana egin arren, babesleak beharrezkoak izango dozu.

Bai, babesleen laguntza barik ezingo geunke ezer egin. Durangoko Udala, Zarate eta Elexpe, Cafés Baqué, Sukia, Sabeco eta beste hainbat babesleri urteotan taldearen alde egindako ahalegina eskertu behar deusegu.

“Doan jasotakoa doan itzultzea da aldarrikatzen dogun filosofia”

“Kopuru aldetik, nesken taldeak mutilenak baino gehiago dira”

“Urte osorako urteurreneko egitarau zabala prestatzen gabilz”

Gazteei zuzendutako Uda Eskola antolatzen diharduzue.

Igazko udan 120 umegaz martxan jarri genduen kirolekin zerikusia daukan udalekua. Aurtun gazte gehiagok izena emon dau.

Kirol hezkuntzatik haratago joan gura izan dozu.

Zintzotasuna, talde-lana, laguntasuna, konpromisoa... lako baloreak bultzatzen doguz, eta horreexek dira Tabirakori zentzua emoten deusienak. Taldea hazkunde pertsonalerako tresna izan behar da. Tabirakoko jokalarien artean ehuneko handi batek unibertsitate ikasketak daukaz. Tabirakoren arrakastetako bat da hori.

Noiztik zara presidente?


2007-2008 denboraldian ekin neutsan presidente lanari. Aurretik lehendakariorde eta zuzendaritzako kide jardun neban. Alabak taldean jokatzen eban, eta zuzendaritzan parte hartu gura ete neban galdetu eusten. Tabirakok asko emon eustan alaba taldean zebilelako, eta neuk be bertan laguntzea erabaki neban. ■ Jone Guenetxea

EKONOMIA[>]

> DURANGALDEA

Enpresa proiektu kooperatiboak lagunduz

Durangaldeari be zabalik dago Lea-Artibaiko Kooperatiben Mahaia Elkarteak Azaro Fundazioagaz batera antolatu dauen lehiaketa



Plateruenak Azaro Fundazioak zuzendutako egitasmoaren laguntza jaso eban. Asier Arroita

Enpresa proiektuak kooperatiba eredura bideratzea helburu hartuta lehiaketa eratu dau Lea Artibaiko Kooperatiben Mahaia Elkarteak, Azaro Fundazioaren laguntzagaz. Lea-Artibai, Deba Barrena, Bustuarialdea eta Durangaldeko enpresa proiektu kooperatiboek daukie aurkezteko aukera, ekainaren 12a bitartean. Proiektu onenak 3.000 euro irabaziko ditu eta 2.ak 1.500 euro.

Egitasmoaren bideragarritasuna, sortuko den lanpostu kopurua, barrikuntza maila eta balore kooperatiboekin bat egitea hartuko dabe kontuan. Lanak honako helbidera helerazi leitekeez: aarrizubieta@leartik.com.

Datorren ekainaren 12a
bitartean aurkeztu leitekez
enpresa proiektu
kooperatiboak

Proiektu onenari 3.000 euroko saria emongo deusie, eta bigarrenari 1.500 eurokoa

Jaurilaritzako Gizarte Ekonomia Zuzendaritzak Azaro Fundazioaren bidez aurrera daraman egitasmoa 2003an sortu zen. Orduantxe batu ziren eskualdeko kooperatibak, eta gaur egun arte gizarte ekonomiako 7 enpresa barri sortu dira egitasmo horrek lagunduta: Durangoko Platerue-na kafe antzokia, Mendilankor, Leabai, Oizpe, Xemein Elektrik, Malibi eta Duodac. Enpresa barrion sorreran paper "zuzena" eta "garrantzitsua" jokatu dau Kooperatiben Mahaiko Elkartek. Cikautxo, Kide, Eika, Fagor Arrasate, Danobat, Burdinola, Euskadiko Kutxa eta Maier dagoz elkar-te horren baitan. ■ A. B.

Behargintza zentroekin batzartu da foru diputatua

Bizkaiko Enplegu eta Tokiko Garapenerako 22 zentroetako (Behargintza) arduradunekin batu da Aldundiko Lan eta Trebakuntzako foru diputatu Eusebio Larrazabal. Zentroetatik helezotako iradokizun eta plantamenduak batzeko egin dabe batzarra, aurtien bigarrenegiz; era berean, enplegua eta trebakuntza direla-eta bakotxak bere eskualdeko beharrei aurre egiteko, azaldu dabenez.

Lan eta Trebakuntzako foru dekretuen zirriborroak be aurkeztu dira, eta datozen urteetan indarrean egongo den Behargintzako hitzarmen barriaren inguruan be eztabaidatu dabe. Behargintzako 22 zentrootan, guztira, 217 langilek dihardue.

> DURANGO

Krisiari aurre egiteko finantza aukeren barri azaldu dabe

Krisiari aurre egiteko merkatarí eta autonomoendako izan leitekezen laguntza finantzarioak azaltzeko jardunaldia izan dabe Landako elkartegian, +dendak Durango eta Iurretako merkatarí elkarteak antolatuta. Sabadell banketxeagaz finantzaketa lankidetzat hitzarmena sinatuta dauka merkatarí elkarteak eta horren baitan merkatarí zein autonomoei begira egon leitekezen irtenbide finantzieroa azaldu deusiez. Besteak beste, kreditu Ofizialeko Institutuaren laguntzak edo Jaurlaritzaren bitartez lortu leitekezenak. Elkarteetan 175 bazkide dira eta inbait konsultatuta eskaera jaso ditue finantzaketa aukerei jagokonez. ■ A. B.

kolaborazioa

Jose Petite
CCOO sindikatuak

Ez da gure krisia, baina badira gure eskubideak

Maiatzaren 16an 11.000 lagun baino gehiago bildu ginen Bilbon, kalean esateko ez dela gure krisia baina badirela gure eskubideak. Hori izan da krisiaren aurrean gizarte mobilizazio eraginkorra.

Beste behin, CCOOK
kaleak bete zituen oraingo
egoera ekonomikoa salatzeko,
langileriak haren ondorio
kaltegarriak jasan behar
baititu. Kalera atera ginen
hurrengo helburuekin:
enpresaburuek krisia aitzakia
gisa erabil ez dezaten, sasi
konponbideak aholkatzeko;
espekulatazaileen eta finantza
ekonomiko ustelaren kontra
jotzeko; nazioarteko merka-
tuan ezin delako lehiatu
soldata ziztrinak eta lan
baldintzak txartuz; ez dugula-
ko onartuko langabetuak
inolako babesik gabe gera-
tzea.

CCOOK kaleak bete zituen enpresaburuek krisia aitzakia moduan erabili ez dezaten

Eta proposamenak ere baditugu: eredu produktiboa aldatzeko, berrikuntza, prestakuntza, kalitateko enplegu egonkorra lortzeko eta finantza merkatuak arautzeko; nola babes sozialen sareak hala EETak edo langabezia pairatzen duten langileentzako laguntza sendotzeko.

Horrexegatiko, mobilizazio honekin ez da amaitzen kontua. Erakutsi dugun indarrak bai etor daitezkeen arazoen aurrean sindikatua-ren jarrera finkatzeko bai krisiaren ondorioei aurre egin diezaiegun gure proposamenak zuzenak direla erakusteko balioko du, lan gatazketan zein negoziazioetan.

**Mobilizazio honekin ez da
amaitzen kontua, gure
proposamenak
zuzenak baitira**



EXCAVACIONES

JON

MUYA LUZITU LAKO INDUSKETAK
HONDATZEN DITZA

Jon Garitagoitia Gullustregui

ENDOTEGIEN, BIK + ZIBELIA - BIZKAIA SAILLAIRA
Tel: 9441 77 33 54 • FAX: 944 11 33 30



ZARATE ELEXPE
E R A G I L E A K

Bixente Kapanaga 19, behea
48215 IURRETA (Bizkaia)
Tel.: 946 816 673
Faxa: 946 817 636
construcciones@zarateyelexpe.biz

KULTURA[>]

El Cigalaren txaloak



Argazkia: Kepa Aginako

Txaloak eman eta jaso egin zituen joan zen zapatuan Diego "El Cigala" flamenko kantariak Durangoko Landa-kon eskainizuen kontzertuan. *Dos Lágrimas* izenburua daraman eta orain urtebete plazaratu zuen diskoan bildutako kanta ezagunak eskaini zizkien kantari madrildarrak bertan bildutakoei.

Tradiziotik jasotako kanta ezagunen bertsioak egin zituzten El Cigalak eta bere taldeak. Kantariaren ahots flamenkoaren eta bere taldearen jazz doinu eta doinu latindarren elkar ulertzetik sortutako erritmoak izan ziren. Taldean, besteak beste, 80 urteko Guillermo Rubalcaba piano-jotzaile kubatarra du El Cigalak *Dos Lágrimas* biran laguntzaile.

Elkar ulertzeko tresna

Horixe da erritmo, jatorri eta tradizio desberdinetako lagunek elkar ulertzeko modua: musikaren hizkuntza unibertsala. Orain 6 urte *Lágrimas Negras* diskoarekin Diego "El Cigala" madrildarra eta orduan pianoan lagun zuen Bebo Valdes kubatarra ezagun bilakatu zituen hizkuntza bera.

Zapatuko Durangoko Landa-koko emanaldian 660 lagun izan ziren Diego "El Cigala" txalotzen. Euskal Herrira etortzen den guztietan bezala, "maitasuna" helarazi ziotela entzuleek adierazi zuen kantariak. Amaieran, "beste bat" eskatu zioten hainbat bider. ■ I.E.

12 'Euskarazetamol' lana Arriolan

Euskara sencilloaren manifestoa eta Larruhaizetara lanen ondoren hirugarrena eskainiko dute Arriolan Mikel Martinez eta Patxo Telleriak ekainaren 11n.



13 'Aitonaren urtebetetzea'

Durangoko Musika Eskolan 80 lagun baino gehiagoren elkarlanetik sortu dute gaur eta bihar emango duten *Aitonaren urtebetetzea* opereta.

ANTZERKIA > EMANALDIA

Bikoteatroa, euskarari buruzko hirugarren komedia aurkezten

Ekainaren 12an izango da 'Euskarazetamol' Elorrioko Arriolan ikusgai



Ez Dok Hiru Bikoteatroa antzerki taldearen *Euskarazetamol* antzezlana da ekainaren 12an Elorrioko Arriolan izango dena. *Euskarazetamol* manifestoa eta *Larruhaizetara* lanen ondoren, *Dibertimentuak* izeneko trilogiaren azken alea da barikuan Elorrioren izango dena.

"Euskaraz antzerkia egitea da/Desgrazia ta nahigabeen iturria/Bagoaz ziztu biziz preparatzera/Ostiakidetzako konbokato-

Euskarari buruzko komedia da 'Euskarazetamol'

ria.../...Euskaraz antzerkia egitea da/Bizitzaren loterian saria/Bagoaz ziztu biziz preparatzera/Ez Dok Hiru-n hurrengo Komedia", diote antzezlana aurkezteko.

Hizkuntzarekin "jarrita" dau-denean zer egiteko gai diren erakutsi nahi dutela diote Ez Dok Hiru Bikoteatroko Patxo Telleria eta Mikel Martinez antzezleek.

"Esperimentu zientifiko bat egin dugu, mega-ikuskizun hone-tarako behar dugun super-euske-ra lortzeko: Euskaltzaindiako Libu-rutegian sartuta egon gara hilabe-tez, artxibadore baten barruan", diote *Euskarazetamol* antzezlana aurkezpen txostenean.

ARTEA > ERAKUSKETA

'Hitzaren itzalak' ikusgai ekainean Museoan

Makuso, Gorrotxategi eta Otxotekoren olerkiak eta Imanol Larrinagaren margoak

Durangoko Arte eta Historia Museoan ekainean zehar ikusgai izango den erakusketa da hiru olerkari eta margolari durangar bat bildu dituen. Margolaria Imanol Larrinaga irakaslea da, eta Juan Ramon Makuso, Aritz Gorrotxategi eta Pello Otxoteko poeten hiruna poemaren inguruan sortu ditu erakusketa honetan bisitagai dau-doen koadroak. Guztiak, urmar-goekin landutako koadroak eta

Poeten hiruna olerkiren inguruan Larrinagak sortutako margolanak

idatzitako olerkiak, bata bestea-ren alboan ipini dituzte Museoan lehenengo pisuan ikusgai, herri-tarrentzat zabalik.

Makusoren *Maite duzun hiriak*, *Iraganetik oraina ezkuta-tu arte*, eta *Beltza dario egun eguz-kitsuari txoriaren mokoan*, Gorro-txategiren *Biharko haria*, Gure epika izkiriatzeko eta *Leviathan eroriak*, Otxotekoren *Eztia eta olioia*, Gorputza eta Goizeko kafea dira Imanol Larrinagak irakurri eta ur eta kolore nahasketarekin bere erara interpretatu dituenak.

Irakurle bakoitzaren buruan irudi desberdinak sortzen dituzten poemak, eta pintoreak egin-dakoa alderatzeko aukera. ■ I.E.



Gaur eskegi dituzte poemak eta koadroak Museoan hormetan

'Hitzaren itzalak' hau da ekainean zehar Museoan ikusgai izango dena

GEURE DURANGALDEA



Arantza Arrazola San Agustingo kudeatzailea

Antzerki azokak

Antzerkia eta kultura, orokorrean, zerbitzu bihurtu direnetik, merkatu berriak zabaldu dira. Batzuek, antzerki ekoizleek, euren lana erakusteko premia izaten dute, gaur egun produktu deritzogun hori ezagutzera emateko. Beste batzuek, programatzaileek hain zuzen, informazioa da behar dutena, eta ideia berriak. Horrela jaio dira antzerki azokak.

Egia esan, aipatutako antzerki azokak programatzaileen premiak asetzeko tresna ezin hobea direla gaur egun esan daiteke. Gainera, azoka horietara joaten diren konpainiei ere kontratuak eskuratzeko aukerak zabaldu egiten zaizkie antzerki azoketan parte hartuz.

Euskadin azoka bi egiten dira: bata Donostian eta bestea Leioan. Azken honetan oraintsu 53 lan izan dira ikusgai, haietariko 17 antzezlana euskal konpainiek aurkeztuak. Durangon, 'Uda Kalean Bizi' programaren barruan, aipatutako 17 horietako hiru izango ditugu uztailan.

Azken boladan kritika asko jasotzen dituzte antzerki azokak; zenbait kasutan baldintza teknikoak ez direlako aproposak kezkatzen dira konpainiak.

Programatzaile zein ikuslearentzat, aldiz, hainbat ikuskizun jarraian irentsi ondoren objetibotasuna galdu egiten dela esan dezakegu. Zenbait kasutan, sektorean hainbat iritzi ere sortzen da, ikuskizun bat gora edo behera eraman deza-keena, eta sarritan hori ere ez da bidezkoa izaten.

Dena den, sektorearen benetako birmoldaketarik ez dagoen bitartean, eta azoka eredu hoberik eskaintzen ez den arte, gabeziak gabezia, nik neuk orain ditugun azokak defendatzen jarraituko dut.

LEHIAKETA > GRAFFITIA

'Spraikada' graffiti lehiaketaren seigarrena

Ekainaren 30a arte eman daiteke izena Euskal Herriko VI. Graffiti lehiaketan

Euskara Elkarteen Federazioak, Topaguneak, eta Mutrikuko Udalak aurkeztu dute Spraikada izeneko graffiti lehiaketa. Aurtengoa Topaguneak antolatzen duen Euskal Herriko seigarren graffiti lehiaketa izango da. Mendaro, Getxo, Tolosa, Gernika-Lumo eta Erandiotik pasatu ondoren, Mutrikun izango da aurtengo buruz burukoa, uztailaren 18an.

Hamar graffiti lehiatuko dira Mutrikuko buruz burukoan, eta 1.500, 1.200 eta 900 euroko sariak izango dira jokoan. Aukera paregabea izango da, Mutrikun uztailaren 18an, graffitiak egiteko prozesua jarraitu eta egiten ikasteko ere: tailerrak eta bestelako jarduera osagarriak ere izango baitira buruz buruko egunean.

Parte hartzeko, egin nahi den graffitiaren zirriborroa bidali behar da ekainaren 30a baino lehen. Jasotakoen artean, hamar onenak izango dira Mutrikuko hormetan islatuko direnak. Baldintza bakarrak 16 urte izatea eta graffiti euskaraz egitea dira.

Uztailaren 18an izango da lehiaketako buruz burukoa Mutrikun

16 urte izatea eta graffitiak euskaraz egitea dira baldintzak

1.500, 1.200 eta 900 euroko sariak banatuko dituzte onenen artean

MUSIKA > ELKARRIZKETA

Musika eskolako 80 abeslari eta musikari batuko dituen 'Aitonaren urtebetetzea'

Agurtzane Mentxaka eta Irati Ortubia dira 'Aitonaren urtebetetzea' koordinatu duten Bartolome Ertzilla musika eskolako kantu eta biolontxelo irakasleak. Gaur eta bihar dituzte emanaldiak San Agustinen

Zelan joan da martitzenean egin zendueen azken entsegu?

Oso ondo. Kontzertua bera izango balitz moduan egiten saiatu ginen martitzeneko entsegu orokorra. Ahal zen gitxien gelditu eta dena jarraian egiten saiatu ginen, jantzi eta guzti.

Musika eskolako hainbat taldek hartzen du parte gaur eta bihar egingo dozu lanean?

Eskolako gazteen orkestrak, haur eta gazteen abesbatzak eta kantu ikasleek hartuko dabe ikuskizunean parte.

Orkestra gazteak, abesbatzak eta kantu ikasleek hartzen dute parte

“Jatorrizko partiturak moldatzeko lanean igazko abenduan hasi ginen”

Eta guztiak koordinatzen ibili zatie zeuek... Ordu eta entsegu askoko lana izan da?

Hori da, bai. Joan zen urteko abenduan hasi ginen biok partiturak prestatu eta moldatzen. Ordu askoko lana izan zen partitellak atera eta instrumentueta- ra egokitzea. Kasu batzuetan, jatorrizko partitura errazago zelan egin be asmatzen jardun behar izan genduen. Irailean hasi ginen ikasleekin lantzen.

Guztira, zenbat ikasleek hartzen dau parte ikuskizunean?

Laurogei lagun inguru izango gara gitxi gorabehera 'Aitonaren urtebetetzea' egingo dogunak. Orkestra, abesbatza eta sei bakar-lari. Musikariek biolina, biola, txeloa, klarineta, oboea eta saxofoia jotzen ditue.

Halako ikuskizuna antolatzen dozu lehenengo aldia da?

Igaz egin genduen 'Aitonaren urtebetetzea' izeneko hau bera, baina orduan pianoagaz egin genduen. Hasieratik izan dogu opera hau orkestragaz egiteko asmoa, eta igazkoa aurtengoaren entsegu baten antzekoa izan zen. Orfeo txikiko umeek be hartu eben parte igaz, eta jentte gehiago batu ginen.

Hainbeste haur eta heldu koordinatzea be ez da bape eginkizun erraza izango...

Oso gaxa da, bai, eta nekagarria. Asteroko lanaz gainerako beste lan bat da, eta gainera azterketa garaiagaz be batu jaku orain. Astero-astero egin behar izan doguz entseguak.

Eta zergaitik aukeratu dozu XVIII. mendeko Aitonaren urtebetetzea moldatzea?

Ez delako oso luzea, umeentzako aproposa delako eta lar gaxa-be ez delako. Bestalde, erraza be ez denez, ikasleentzako motibazino iturri izan da piezak jotzen edo kantatzen ikastea.

Jantziak be bereziak izango dozue, zelan ez.

Orkestran, adibidez, bakotxak bere arropa lortu dau: praka beltzak eta alkandora zuria eroa-tea adostu genduen. Euren jantziak alokatu edo erosi be egin ditue batzuek, Mozarten garai-ko, XVIII. mendeko, janzkera behar genduen-eta.

Durangokoez gainera, beste emanaldirik egingo dozue?

Asmoa Durangotik kanpora be erakustea zen, baina konturatu orduko heldu da ekaina, eta ez daukagu denporarik.

“Hasierako asmoa Durangotik kanpora be emanaldiak egitea zen”



Iban Gorriti

Jatorrizko arie zeuek gehitu deusazuek elkarrizketak.

Bai. Jatorrizko ariak alemanieraz datoz, eta abestietan esaten dena euskaraz azaltzen daben elkarrizketak gehitu deusazuek.

Halako emanaldiak eskaintzera ohituta dagoz ikasleak?

Urtean zehar hainbat emanaldi egiten ditue, baina hau lako gauzak bereziak dira: musikariek 10 pieza jotzen ditue hone-tan, eta kantariak be ez dabilz

“Alemanierazko zatiak euskarazko elkarrizketa bilakatu doguz”

hainbeste denporan kantuan. Kontzentrazino berezia behar dabe lan hori egiteko.

Zein da Aitonaren urtebetetzea operetaren argumentua?

Zazpi loba dituen aitia baten urtebetetzea da, eta festa antolatzen deusie ilobek. Bakotxak opari bat egiten deusie aitari. Ikuskizun berezia da prestatu doguna; pianoagaz egin genduen asko gustatu jakon ikustera etorri zen jenteari. ■ I.E.

Udaleku Musikaletan izena emateko epea zabalik Bartolome Ertzillan

Ekainaren 22tik uztailaren 3a bitartean izango dira Durangoko Bartolome Ertzilla musika eskolan umeentzako pentsatu eta antolatutako Udaleku Musikalak. Dagoeneko eman dezakete izena interesa duten 4 eta 12 urte bitarteko umeek.

Kirol udalekuak, familientzako oporraldiak edo arte-tailerrak egiten diren moduan, umeen oporren hasierako aisialdi eta hezkuntza proposamena dira Udaleku Musikalak. Bereizgarria argi dago: musikaren inguruan antolatutako egitaraua da Udaleku Musikaletan eskaintzen dena. “Aste bi jolasean, gauzak deskubritzen, interpre-

tatzen eta musikaren mundu zoragarriaren alderdi ugarietan murgiltzen”, igarotzea da izen emate-orrian jasotzen denez, Udaleku Musikalen iza-teko arrazoiak eta helburua.

Udalekuek iraungo duten bi asteetan, 09:30etik 13:30era, kontzertu didaktikoak, adierazpena lantzeko jolasak, soinketa, dantza, koreografiak eta kantua landuko dituzte. Metodo parte-hartzailea, emaitza oso positiboak dituen eta programa integrala dute oinarri.

Bukaeran, familia guztiarentzat kontzertua egingo dute udalekuetan ikasitakoa erakusteko.

ARTEA> ESKULTURA

“Detaile txiki asko dituzten lanak dira tailatzen zailenak”

Zura lantzen du Elgetan jaio zen eta Berrizen bizi den **Felix Larrañagak**



Etxaburu baserrian, Berrizen, burutzen du bere lana Felix Larrañaga elgetarrak. Orain urte bi utzi zioten Agus eta Sabinoklanerako toki ganbaran.

Beste ganbaran, azkenaldian buruan bueltaka darabilena Berrizko baseliza guztien erreplikak zizelkatzea da: “Jende zaharrak baino ezagutzen ez dituen dozena bat baseliza horien erreplikaren bidez, baselizen inguruan sortutako auzo txikiak ezagutzera emateko”. Prozesu hori, luzea eta geldoa izango da, artista eta artisauaren erakoa: irudikatuko duenaren argazkia egin lehenengo, handitu, marraztu eta gero hasiko da zura zizelkatzen.

Orain urte asko bi metro baino gehiagoko “astakeri” bat egin zuela dio, berau lantzen lau hilabete egon zelako: Picassoren *Gernikaren* erreplika egin zuen zuran. Armarriak, argizaiolak, erloju-kutxak... egiten ditu orain.

Orain, enkarguz, “jendearen kapritxoak” egiten ditu gehienetan. Hasieran zaletasun, duela 20 urte lanbide (ikastaroak ematen

Orain urte asko bi metro baino gehiagoko Gernika tailatu zuen zurean

Berrizko baselizen erreplikak egitea du hurrengo proiektua

Urte askoan utzita izan du zaletasuna, orain bi urte berreskuratu du

zituen INEMen), eta orain berriro zaletasun du tailatzea.

Tartean, 16 urtean itsasoan lanean izan zelako eta ondoren kamioilari lanetan nazioarteko bidaiak egiten ibili zelako, alboratua izan du zura lantzeko zaletasuna. Duela pare bat urte heldu dio berriro zizelari.

Kartzelan hasitakoa

Denborapasan hasi, eta “enganxatu” egin zela dio Larrañagak. Zura, kartzelaldian barrura sartu zitekeen material bakarretarikoa zelako hasi zen bere lanetarako lehengai lez erabiltzen. Gauza txikiak egiten zituen, material askorik ezin zelako sartu hara.

Geroago, Berrizen ezagutu zuen, dioenez, Anastasio Gorrotxategi izeneko “fenomeno” bat: Euskal Herrian erloju-kutxak egiten zituen gutxietako bat omen zen Gorrotxategi berriztarra.

Larrañaga eta Gorrotxategi lotu zituen zaletasuna baina, “nekosoa” dela dio Felixek: “eskuek eta besoek asko sufritzen dute honelako lanak egiten”.

“Lanek benetan balio dutena ezin diogu jendeari kobratu”

“Beste inon ez dauden pieza bakarrak dira egiten ditudanak”

Arratsaldeak aprobetxatzen ditu Etxaburuko tailerrean lan egiteko. Inguru zoragarrian tailerra ipintzea eskaini diotelako, oso eskertuta dago Agus eta Sabino-ri. Etxe azpi batean egoteko desatsegina ei da halako tailer bat, zarategatik: “txalapartaren modukoa da; kan-kan-kan-kan...”, inori traba egin ez eta lantzean behin kanpora atera eta inspiratzeko ezin aproposagoa du bere lokala.

Zailena, detaile askoko lanak izaten ei dira; Euskal Herriko armarrian, esaterako, Nafarroako kateek ematen omen dute lanik gehien...

Alemaniera eta Estatu Batuetara eramateko saldu izan ditu bere lanak, eta orain asteburu bi Mallabian egon zen azokan. Abenduan Apatara joan zen zaletasuna berreskuratu duenetik lehe-

nengo azoka izan duenera. San Pedro hurrengo igandean Elgetako azokara joango da. Azoketan sortzen dira enkargu gehienak, baina saltzerakoan “lanek benetan balio dutena ezin izaten dugu kobratu”, dio: erloju-kutxa bat zizelkatzen hilabete ematen du, eta lanorduko ez da posible kobratzea.

Ikeako altzariak etxe guztietara sartu diren garaiotan, Felixek uste du hortik “herri huts eta pertsonalitate bakoetara goazela”. Txinan eta Abaltzizketan altzari berdinak izatea barik, bakarrak diren eta “beste inon ez dauden” horiek nahiago Felixek.

Gaztaina, intxaurra eta gereziaren zura erabiltzen ditu gehien. Gozotasuna behar bada intxaurra, finagoa delako, gaztainak beta gehiago izaten baitu. ■ I.E.

PLATERUENA Durangoko Kafe Antzokia

www.plateruena.net

EKAINAK 6 22:00etan
SEI URTE + UNE
KONTZERTUA. Sarrera: 5 euro.

EKAINAK 11 22:00etan
SWEET OBLIVION
KONTZERTUA. Sarrera doan.

EKAINAK 12 22:00etan
MALLACAN +
GEN + DRAPS
KONTZERTUA. Sarrera + CD: 7 euro.

Eguneko menua astelehenetik larunbatera
Landako etorbidea, 4a 48200 Durango Tel.: 946 030 300

OHEAN

Maskarada Antzerki Taldea (Donostia)

San Agustin KULTUR GUNEA
DURANGOKO UDALA

Ekainak 11
osteguna 20:00etan

HITZ

Liburudenda

11:51 601 07 76 Artekale, 14 Durango

ingurumena09

gehigarria

anboto

babesleak:



Mancomunidad de la Merindad
de Durango
Durangoko Merinaldearen
Amankomunazgoa



ZELULOSAZKO ONTZIAK
BIODEGRADAGARRIAK
ETA
BIRZIKLAGARRIAK

Autonomia, 2 - ATXONDO (Bizkaia)
tel.: 94 623 17 17 Faxe: 94 623 17 99

CEMOSA
CELULOSAS MOLDEADAS, S.A.

www.iberdrolarenovables.es

90.000 tona CO₂ garbiagoa da zerua Oizko Parkeari eskerrak

Oizko Parke Eolikoko 40 aerosorgailuek 90.000 lagunek urtebetean erabilitzen daben energia kopurua sortzen dabe; gainera, bestelako energia sorgailuek baino 90.000 tona karbono dioxido gitxiago isurtzen dabe

Oizko Parke Eolikoak sortzen dauen energiagaitik beste balio dau ingurumenera isurtzea eragozten dauen karbono dioxido kopuruagaitik. Etengailuari eman eta etxea bat-batean argizatzeak momentuko erabilgarritasuna dauka; urtean ia 90.000 tona karbono dioxidoren isuria aurrezteak, aldiz, ez da begiekin ikusten den ezer, baina bai Naturaren birikek eta gu guztion osasunak eskertzen dauena.

Iberdrola Renovables da –Eólicas de Euskadi enpresaren bitartez– Oizko Parke Eolikoaren promotorea, Bizkaian egin zen lehenengoa eta lurralde honetan gaur egun potentziarik gehien sortzeko ahalmena daukana. Berrizko, Mallabiko eta Munitibarko lurretan kokatuta, parkea 2003an jarri eben funtziona-

tzen, 30 aerosorgailugaz: guztira, 25,5 MW-ko potentzia sortzeko ahalmena zeukien. 2007an beste 10 aerosorgailu gehitu eutseezen aurretik zegozenei; 40 aerosorgailuko azpiegitura handituak 34 MWko ahalmena dauka. Energia kopuru hori nahikoa da 90.000 lagunentzako energia eskaria asetzeko.

Beste parkeak

Iberdrola Renewablesek beste hiru parke daukaz Euskal Autonomia Erkidegoan. Martxan denporarik gehien daroana Araba eta Gipuzkoako lurretan altxatutako Elgea-Urkilla da; hamarkada beteko dau datorren urtean. Denetan energiari gehien sortzen dauena be bera da: 60 MW. Kopuru horrek 200.000 lagunentzako

energia kontsumoa segurtatzen dau. Badaia (Araba) 120.000 lagunendako energia nahikoa produzitzen dau (50 MW) eta 116.000 tona isuri eragozten ditu.

Hirurek batera osatzen ditueen datuak azpimarragarriak dira: 410.000 lagunendako energia sortu eta 385.000 tona karbono dioxido aurretzen ditue. Batzuetan, haize gitxi dabilenean, ez da posible energia asko sortzea; haizeak gogoz jotzen dauenean, ordea, lau parkeak milioi bat lagunentzako energia eskaria asetzeko kapaz dira.

Energiaren %26

2009 urtean zehar, Euskal Autonomia Erkidegoan eta Estatuan energia eolikoak egun bateko kontsumo osoaren %26 hornitzera

heldu da. Egun batzuetako unean uneko maximoak %40ra ailegatu dira. Igaz, Estatuko eskari osoaren %11 estali eban energia eolikoak.

Bitxikeria moduan, aipagarria da aurten, urtarilaren 24an, azken 50 urteetako haizearik gogorrenak izan genduzela eta parke eoliko batzuetan haizeak 250 kilometro orduko abiadura hartu ebala.

Politika globalen (Kiotoko Protokoloa), europearren (Energien Liburu Zuria) estatuen (Energia Berriztagarrien Plana) eta Euskal Estrategia Energetikoaren helburu amankomuna honako hau da: 2010erako beharizan energetikoen %12 energia berriztagarrien bitartez asetzera (gasa, petrolio, elektritzitatea...) eta 2020rako kopuru hori %20ra heltzea.

Gaur egun, Oizko parkean 40 aerosorgailu dagoz eta guztira 34 MWko energia kantitatea produzitzeko ahalmena daukie

Oizko Parke Eolikoak 90.000 lagunek kontsumitzen daben energia ekoizten dau, beste horrenbeste CO₂ tonako isuria ekidinez

EÓLICAS DE EUSKADI ENPRESAK GAUR EGUN LANEAN DITUEN PARKEAK

Parke eolikoa	Indarra	Instalazio urtea	Energia	Urtero ekiditen den CO ₂ emisino kopurua
ELGEA-URKILLA (Araba-Gipuzkoa)	60MW	2000-2003	200.000 pertsonarentzat	182.000 tona
OIZ (Bizkaia)	34MW	2003-2007	90.000 pertsonarentzat	87.000 tona
BADAIA (Araba)	50MW	2005	120.000 pertsonarentzat	116.000 tona
GUZTIRA	144MW		410.000 pertsonarentzat	385.000 tona



Tokiko neurriak hartuz, klima aldaketari aurre egiten dihardue

Klima aldaketari aurre egiteko indar txikiak batzeak garrantzia handia dauka. Tokiko politikek herritarren jokaeran eragiten dabe-nez, Durangoko Udalak Klima Aldaketaren Aurkako Udal Ordenantza onartu eban, joan zen apirilaren 28an.

2007an Aire Kalitatea Hobetzeko Plana eta 2008an Etxebizitzetarako eta Bulegoetarako Eraikinen Eraikuntzan Ingurumen Arloko Hobekuntzak Egiteko Ordenantza onartu zitueen. Klima Aldaketaren Aurkako Udal Ordenantzak aurretik indarrean zegoen bi ekimenak uztartu ditu. Aurten, Tokiko Agenda 21eko lantaldeekin batera, klima aldaketaren aurkako ekintza programa adostu dabe. Programa horrek hiru arlo lantzen ditu: mugikortasuna, energia eta airearen kalitatea.

Mugikortasuna

Agenda 21eko mugikortasun lan taldeagaz batera bidegorri sarearen garapena eta garraio publikoaren hobekuntza lantzen dihardue. Urtea amaitu baino lehenago dokumentu bakar bat egingo dabe: Udal Mugikortasun Iraunkorraren Plana. Plan honen helburu nagusiak, bizikletaz eta oinez joatea bultzatzea eta klima aldaketan eta airearen kalitatean eragina daukien isuriak murriztea dira. Mugikortasun Planean 90.000 euroko inbertsinoa egin dabe.

Energia eta airearen kalitatea

Klima aldaketagaz guztiz lotuta dagoen bide honen Airearen Kalitatea Hobetzeko

Planean batuta dagoz. Plan horretan industria arloan sortutako inspektzio planean, obretan sortzen diren hautsen murrizketan eta trafikoan (isurketa baxuko gunea, TAO) lan egin dabe orain arte. Aurten, Durangoko kaleen argiztapena eta Durangoko etxebizitzek sortzen daben airearen kutsadura eta horreen energia kontsumoaren murrizketa zaintzen lan egingo dabe.

Durangoko kaleen argiztapenaren kontsumoa murrizteko, argiztapen koadroetan estabilizadore-erreduktoreak instalatzea erabaki dabe. Neurri horrek, 300.000 euroko inbertsinoa suposatzen dau eta aurrerantzean argiztapen kontsumoa %40 murriztea lortuko ei dabe (hau da, 125.000 euro urtero aurreztuko dira). Aldi berean, neurri horregaz 600 TN CO2 gitxiago isurtzea be lortuko dabe.

Inbentarioa

Durangoko Udalak azkenengo 3 hileetan Durangoko etxebizitzetako berogailuen kalderen inbentarioa egin dau. Inbentario horren ondorioetarako batzuk odorengoak dira: erabiltzen den erragai nagusia gas naturala izan arren, oraindino Durangoko etxebizitzetako %10ek gasolioa eta azkenengo mailan propanoa erabiltzen dau berogailuen erragai moduan; gehienbat instalazio komunitarioetan (San Ignazio Auzunea, Murueta Torre, Txibitena...), eta gainera, zaharkituriko instalazioak dira. Gasolioak hainbat kutsagarri isurtzen ditu Durangoko airera, eta arlo ekonomikoan hurrengo urteetan gorakada aipagarria izatea dago aurreikusita. Gaur egun, kaldera sistema horreek eragina daukie bai PM10 partikulen isurketan



Orain arte araututako ingurumen arloko ordenantzak Klima Aldaketaren Aurkako Udal Ordenantzan uztartu ditu Udalak

Mugikortasunari jagokonez, isuriak murrizteko helburuagaz bizikletaz eta oinez joatea bultzatu gura dabe. Dagoeneko martxan den bidegorri sarea sortzea da plan honen asmoa.

zein CO2 isurketetan. Durangon emititzen diren CO2 tonen %20 inguru etxebizitzek berogailuek sortzen dabe. Arrazoi horregaitik, instalazio komunitarioak mantenduz hurrengo urteetan gasolio erraia berogailuetatik kentzeko asmoz, hainbat politika gauzatuko ditue Klima Aldaketaren Aurkako Ordenantzarekin batera:

1. Etxebizitzetarako eta Bulegoetarako Eraikinen Eraikuntzan Ingurumen Arloko Hobekuntzak Egiteko Ordenantza adostu eben moduan, 20 etxebizitzetako gehiagoko eraikuntza barriek instalazio komunitarioak ezarri beharko ditue.
2. Udalerrin mailan CO2 isurketen inbentarioa

Gasolioa etxeetan erregai legez erabiltzeari izteko laguntzak azalduko ditue ekainaren 11n, 19:00etan Elkartegian.

egingo dabe (garraioa, energia, hondakinak... kontuan hartuz).

3. Datorren ekainaren 11n, ostegunean, arratsaldeko 19:00etan Elkartegian berogailu kalderak aldatzeak dakarren ingurumen eta ekonomia abantailak komunitateetako presidenteei zein administratzaileei eta edozein herritarri zuzenduriko bilera egingo dabe. Bertan, erregaia eta kaldera sistema aldatzeko diru-laguntzak be aurkeztuko ditue.
4. Klima aldaketaren aurkako programa bat

adostuko dabe udal teknikari, politikari eta Agenda 21 herritar partaideen artean.

Airearen kalitatea

2007. urtean martxan jarritako Airearen Kalitatea Hobetzeko Planaren ondorioz, Durangon airearen kalitateak hobera egin dauela nabarmendu beharra dago. 2005. eta 2006. urteetan %30 egun ingurutan airearen kalitatea txarra izan ondoren (100 egun baino gehiagotan kutsadura onargarritik gorakoa zen airean), eta airearen kalitateko legedia gaindituz. 2007. urtean, barriz, azkenengo 10 urteetan lehenengo biderrez, airearen kalitatearen arloko araudiak betetzea lortu zen, eta joan zen urtean airearen kalitatea txarra izan den egunak %3 bakarrik izan dira (guztira, 12 egun urte guztian), PM10 partikulen kontzentrazioa be %55 jaitsiz 2005. urtetik 2008. urtera.

Beraz, Airearen Kalitatearen Planak eta bertan baturiko ekintzak gauzatzeak helburuak betetzea ekarri dau. Azpimarratzekoa da Agenda 21 Foroaren partaidetza be, batez be, Mugikortasuna eta Airearen Kalitatea arloetako lantaldeetan parte hartzen daben herritarren lana.



Durangaldeko hainbat herrik landaketa mota honen aurkako jarrera azaldu dau

Transgenikoak: aurkariak gehituz, legea oztopo

Geroago eta gehiago dira transgenikoen kontrako ohiuak Europan. Gaur egun, 230 eskualde eta 4.200 udalerrri baino gehiago deklaratu dira GEO laboretik libre (Genetikoki Eraldatutako Organismoa); horreetatik 61 Euskal Herrikoak dira. Mallabiak, Elorriok, Berrizek eta Atxondok mezu horixe daukien idatziak onartu ditue udalbatzarretan, lehenago Izurtzak eta Otxandio egin moduan.

2005ean kanpaina bat abiatu eben tokiko hainbat erakundek Europar Batasuneko legedian eragiteko asmoz. Izan be, transgenikoen landaketaren gainean Europa mailan hartu ohi dira erabaki nagusiak. Tokiko hainbat gobernuk produktu transgenikoak landatu ala ez erabakitzeko ahalmena eurek izatea gura dabe. Horretaz gainera, Euskal Herrian be eragile ugari batu dira jarrera horretara: sindikatuak, kontsumitzaileen elkarteak, ingurumenaren aldeko erakundeak...

Eusko Jaurlaritzak, aurreko legealdian, hiru probintziak GEO bako eremu izendatu

zituen, baina nekazariak landaketa era ezbardinak aukeratu ahal izateko dekretua onartu eban apirilean. Koexistentziaren alde egin eban.

Onurak eta kezak

Genetikaren manipulazioak onurak dakar batzuen ustez, kalteak eta kezak besteen eritziz. Kontsumoaren kalitateak ardura-tzen ditu aurka dagoenak. Zalantza zientifiko "ugari" sortzen ei dau epe luzera, eta "ingurumenean sortu leikezen kalteak" handitzen dabilz, kritikoen ustez.

Landaketa barri honen eta tradizionalaren arteko koexistentzia ezinezkoa dela adierazo dabe hainbat eragilek. Elorrioko Udalak eginiko aierazpenean azaltzen denez, "transgenikoen landaketak egitera-koan ezin da ziurtatu inguruko landaketa konbentzionalak kutsatuko ez direnik", nekazaritza sektorean eragin leiken "kaltea ahaztu barik". Ekonomia lokala, kultura, ingurumena eta herritarren osasuna "babesteko aukera" izan gura dabe.



Berrikuntza iraunkortasunerako

Ur Partzuergoak 900 milioi euro inbertitu ditu azken urteotan, Bizkaiko saneamendua hobetzeko. Gure instalazioetan berrikuntzak egiten jarraituko dugu, ekosistemen garapen iraunkorra ahalbidetzeko eta bertan bizi diren pertsonen bizitza-kalitatea hobetzeko.



Bilbao Bizkaia Ur Partzuergoa
Consortio de Aguas Bilbao Bizkaia

ERITZIA[>]

Gutunak  @



Juanito Gallastegi

Elizak... Ai ene!

Esan ete daiteke Euskal Herriak ez dakit zenbat gizon-emakume hil dituenik edo ez dakit zenbat eskubide zapaldu dituenik, hilketak egin dituenak edo eskubide-zapaltzaileak Euskal Herrian bizi direlako? Onak jarriko gintzateke! Eta arrazoi osoz, gainera! Jarri egizu Euskal Herriaren ordeze beste edozein Herri edo edozein erakunde edo edozein elkarte...

Zapalketak, hilketak, kalteak... egin dituenak egin ditu, eta kito!, ez egin dituen horren herriak, elkarre, erakundeak... honek beren-beregi hori egiteko esan edo agindu ez badeutso behintzat. Gitxiago, bere izatea, jokabidea eta legeak guztiz bestetarakoak direnean. Azken aldikada honetan, beste erakundeei buruz argia dena, ez da, antza, hain argia Elizari buruz. Hiru-lau biderentzun eta irakurri dot azken egunotan honako hau: "Elizak, bere kideen bitartez, milaka eta milaka ume, gaztetxo... kaltetu ditu ikastetxeetan, misinoetan..."

Ez dot esango gezurra denik, kontatu ezin ahala zapalketa eta zikinkeria egin izan dira Elizaren esku dagozen erakunde batzuetan. Horrek, solidaritate lege, lotsaz bete behar gaitu kristauok. Eliz agintariak azterketa ugari eta sakonak egin beharko ditue akats eta hoben horren iturria aurkitzeko, eta errudunak nortzuk diren jakiteko eta zigortzeko. Eta kalte-tuei ahal den neurrian kaltea ordaindu beharko deuse.

Okerrak kontatu ezin ahalaok badira, milaka eta milaka, neurri barik, ugariagoak dira Elizaren zerbitzuan jarri diren gizon-emakume gehienek umeen, gazteen, zaharren, preminan dagozenen... alde mundu guztian zehar egiten ditueenak, bizitza osoa emoterainoak. Baina, oraindino, "Elizak lotsabakokeria hau eta bestea egiten dau..." jarraitu beharko dogu entzuten eta irakurtzen.

Prezio Tasatuko Etxebizitza eta Udal Etxebizitza Tasatuen Ordenantzari Zaldibarko ezker abertzaleak jarritako alegazioak

Euskal Herriko ordenamendu juridiko ugariek pertsona orok, bere adina, sexua, arraza ala egoera ekonomikoa kontutan izan gabe, etxebizitza duin eta egokiaz disfrutatze eskubidea duela aitortzen badute ere, errealitatea oso bestelakoa da. Lehen mailako behar eta eskubidea den arren, gaur egun etxebizitza luxuzko ondare bihurtu da.

Eskubideak bermatzea eta gauzatzea da Euskal Herriko Administrazio ugarien (Zaldibarko Udalak barne) eginkizunetako bat. Horrela izanik, gure eritziz, Zaldibarko Udalari dagokio egokiak diren neurriak hartzea zaldibartar guztiei bermatzeko etxebizitza erabili eta gozatu ahal izatea. Ezinbestekoa ikusten dugu, gainera, etxebizitza lortzeko zailtasun gehien dituztenei arreta berezia jartzea.

Edozein etxebizitza egitasmo herriko premien arabera bultzatu behar dela deritzogu. Orain arte etxebizitzaren salerostea batzuentzat negozioa izan bada ere, krisiaren eraginez, ez dago arrazoirik neurri gabe eraikitzen jarraitzeko.

Etxe hutsen erabilera bultzatu behar da (220tik gora Zaldibarran). Egoera txarrean daudenak eraberritzen lagundu. Alokairurako etxebizitza publikoari lehentasuna eman behar zaio. Diru errekurtsio gutxiko zaldibartarrek ere etxebizitza edukitzea aukera izan behar dute.

Ondoren letorke babes ofizialekoak sustatzea. Hortik kanpo jardunez gero, ez ginateke herritarren etxebizitza arazoei erantzuten ariko, espekulazailerentzat lan egiten baizik.

Bitartean, une oro, edozein etxebizitza egitasmo gauzatu aurretik, zaldibartarren parte-hartzea ahalbidetu behar du Udalak, euren aportazio eta eskaerei bide emateko. Baliogarria litzaiteke Tokiko Agenda 21 ekimenari jarraipena ematea.

Honegatik guztiagatik, Zaldibarko Udalak etxebizitza tasatuak eraikitzeari lehentasuna emateko erabakiaren guztiz kontra gaudela esan behar dugu.

Zaldibarko ezker abertzalea

Iurretako Gaztetxea, oztopeno gainetik, aurrera!

Dakizuenenez, azken 2 urte pasatxo hauetan Iurretako gazteok kale gorrian gaude, Abadetxea erre zenetik.

Denbora honetan hainbat eraikin okupatu eta gazteon aterpe bilakatu ditugu; honen adibide, txapisteia, frontoi ondoko txabola, jubilatuen alboko udaletxe zaharra.

Baina, lehen aipatu bezala, kale gorrian egotera kondenatu gaituzte eraikin bakoitzetik botata, egun luze asko karpa baten azpian pasatu ditugularik.

Oztopoak oztopo, ekintza franko burutu ditugu denbora honetan: umeentzako jolasak, San Juanetako antzerkia, bertso eskola, kontzertuak, pin-pon txapelketa, bideo emanaldiak...

Aisialdiaz gain, gazteon etorkizun beltza aldatzeko beste hainbat ekimen ere burutu izan dugu.

Esan beharra dago herriaren harrera ona izan dela ekintza horiek aurrera eramateko.

Hala ere, bota egin gaituzte eraikin horietatik guztietatik eta Udalak ez digu inongo konponbiderik eman.

Orain, Iurretako plazako Abadetxearen inguruan etxebizitza berriak egin diren honetan, hainbat lokal Udalarenak izatera pasako dira, gazteok kalean jarraitzen dugun bitartean.


Ez al dago gazteontzako lekurik?

Gazteok ez al dugu aterperik merezi?

Hau guztia dela eta Iurretako plazako iturri atzeko eraikin hutsa okupatzea erabaki dugu, ikusten dugun aukera bakarra delako.

Partida ez da bukatu, eta Abadetxeko kondairak aurrera jarraitzen du, amets gaizto honen atalari bukatu eman eta atal berri bati ongi etorria emateko asmotan.

Iurretako Gazte Asanblada



Santa Ana Plaza 6, 48200 Durango - astekaria@anboto.org

Izen-abizenak, telefonoa, helbidea eta NAN zenbakiagaz batera bialdu behar dira.

Zure eritzia, gutuna edo fotodenuntzia helarazteko helbideak:

Alderdi, elkarte edo taldeko eritziak kide baten izenean sinatuta eta ANBOTOren erizpideak jarraituz zuzenduta publikatuko dira.

DATUOK BARIK EZ DA GUTUNIK ARGITARATUKO



EUSKO JAURLARITZA
GOBIERNO VASCO

Kultura Sailak
(Hizkuntza Politikarako Sailburuordetza)

diruz lagundutakoa



anboto
durangaldeko astekaria

Anboto komunikabideak Elkarteak
2009ko ekainaren 5a - 8. urtea - 333 zk.

Laguntzailea:	Eta honako Udal guztiak:
	Abadiño Elorrio Mañaria
	Atxondo Garai Mallabia
	Berriz Iurreta Otxandio
	Durango Izurtza Zaldibar

Zuzendaria:
Jone Guenetxea.

Erredakzio burua:
Joseba Derteano.

Administrazioa:
Itziar Belar eta Miren Abasolo.

Publizitatea: Itziar Azula, Goretti Alonso eta Amaia Huarte.

Erredakzioa:
Aitziber Basauri, Maria Gonzalez, Itsaso Esteban, Markel Onaindia

Testu zuzentzailea: Igor Elortza.

Maketazioa:
Ainhoa Arizmendiarieta.

Argazkilariak: Iban Gorriti, Judit Fernandez eta Kepa Aginako.

AGENDA >

> ANBOTOk agendan ezer iragarri gura badozu, agenda@anboto.org helbidera idatzi edo 94 623 25 23 telefonora deitu egiguzu, eguazten eguerdi aurretik.



Ekainaren 5 eta 6an, 20:00etan

URTEKO UZTA

Urtean zehar egindako lana taularatu-ko dabe asteburuan Bartolome Ertzilla musika eskolako kantu ikasleek. Musika eskolako abesbatza eta Xaramel gaztetxoan abesbatza lagun ditueela, *Aitonaren urtebetetzea* opereta aurkeztuko dabe, Das Namenfest Operaren moldaketa (F.X. Süßmayr). Zuzeneko musika Bartolome Ertzillako orkestraren ardura izango da. San Agustín kulturgunea izango dabe agertoki.

ekaineko agenda

Ekainak 6-7 • Iurretako Txirindulari Elkarteak
08:00 Iurretatik Iurretara. (90-100km)

Ekainak 11-12 • XXII. Emakumeen Bira
11 eguna - 16:45ean Iurretako Iurretara. 1. etapa.
12 barikua - 16:00etan Amurrio-Amurrio. 2. etapa.

Ekainak 6 • Anderebide Iurretako emakumeen elkarteak
08:30 Irteera Maspetik.

Ekainak 7 • BBK Skate Eskola
Txapeltxiki erakustaldia skate tailerrak Maiztegi Herri eskolan

Ekainak 8-10 • Previas Torneo Cafes Baque
8 astelehena - 19:00etan Kadeteak
10 eguaztena - 19:00etan Gazteak

Ekainak 10-11-13 • Iurretako Kultur Etxea
10-11-13 Erakusketa 11:00-12:30 eta 17:30-20:00
11 Iurretako kultur tailerren ikasturteari amaiera emateko jaialdia

IURRETAKO UDALA



EKAINA

BERRIKO UDALA

Ekainak 5

- Berrizko Musika Eskolako ikasleen kontzertua Kultur Etxean 21:00etan.
- Nazioarteko Ingurumen Eguna: Umeen jolasak ECO-JUGA parkea Olakueta plazan 16:30ean.

Ekainak 6

- Ingurumenaren Eguna: Erreka garbitzea

Ekainak 7

- Ingurumenaren Eguna: Urbiara irteera

Ekainak 12

- Musika multikulturala Damba taldearekin Udaletxeko Lorategian 22:00etan. Euria eginez gero Kultur Etxean.

Ekainak 12-14

- Futbito maratona

Ekainak 14

- 'Ateak zabalik: Kirolari' Berrizburun

Ekainak 19

- UNHE trio musika taldearen "Solosaldua" Udaletxeko lorategian 22:00etan. Euria eginez gero, Kultur Etxean.

Ekainak 21

- 4. Topaketa Interkulturala

Ekainak 23

- San Juan bezperako sua

EKAINAK 26 - UZTAILAK 2 SAN PEDRO ETA SANTA ISABEL JAIK

Bestelakoak

- Uztailako kirol ikastaroetarako izen ematea ekainaren 24a arte.
- "Oporrak Bakean" programan ume saharuak etxean hartzeko kanpaina

BERTSOAK

IURRETA

- » **Bertso Eguna.** Ekainaren 6an, Gure Barik Gaztetxeko bertso eskolak eratuta: **trikipoteoa** 12:00etan, eta 14:30ean **bazkaria** (txartelak Iurretako Gau Argin eta Durangoko Intxaurren). **Gure Barik eskolako gaztetxoan saioa**, gero. **Aitzol Barandiaran, Miren Amuriza, Gorka Lazkano eta Xabier Enbeita bertsolariak** 17:00etan, eta 19:00etan **bertso jolasak**. Iluntzean, 20:00etan, **karaokea eta erromeria (Petite&Konpani)**, eta gaurdian **kopla zoroen lehiaketa**.

BESTEAK

DURANGALDEA

- » **Arabako Errioxara irteera**, ekainaren 13an, 09:00etan, Madalenan. Ekainaren 9a arte emon leiteke izena: Berbaron (94 620 19 18), AEK-Abarak Euskaltegian (94 681 73 49), Udal Euskaltegian (94603 00 40) edo Berbalagunen (639 400 786).

DURANGO

- » **Lariz Torrerak bisita gidatua**, ekainaren 6an. Izena emoteko, Turismo Bulegoan (94 603 39 38).

ERMUA

- » **Extremadurako zentroaren kultur astea**, ekainaren 7a arte, Gaztela-Leongo zentroak eratuta. Ekainaren 5ean, 19:00etan, **'Riomundo'** liburua berbagai **Jon Maiagaz**.

- » **Kulturarteko jaia**, ekainaren 6an, 11:00etatik 20:00ak arte, Orbe Kardinalek plazan. Ermuko GKEen Partzuergoak eratuta.

MAÑARIA

- » **Marko eta Askondo kobetara irteera gidatua GEMA elkartearen laguntzagaz**, ekainaren 7an, 10:00etan, plazan. Aldundiko Nekazaritza Sailak eratuta.

ZALDIBAR

- » **Gaztelekua (12-16 urte)**, ekainaren 5, 6 eta 7an, 16:00etatik 20:00etara. **Zapatublaia**, 16:00etatik 19:00etara, herri ikastetxean.

- » **Mendi irteera: Cotobasero (824m)**, ekainaren 7an, 08:00etan, udaletxearen aurreko plazan.

ZORNOTZA

- » **Gazte diskoteka (11-17)**, ekainaren 6an, 20:00etatik 23:00etara, Zelaieta zentroan.

BERBALDIA

IZURTZA

- » **Pentsino osagarriaren legea**, ekainaren 9an, 17:00etan, Jubilatuen Etxean. Amankomunazgoak eratuta, Etxebizitza eta Gizarte Gaiei Sailak lagunduta.

DANTZA

ZORNOTZA

- » **'Papiro...flexia' (Circle of Trust-Logela Multimedia)**. Ekainaren 5ean, 21:00etan, Zornotza Aretoan.



DEIAK

DURANGO

- » **Genero biolentziaren kontrako elkarretaratzea**. Eguenero, 20:00etan, Andra Mariko elizpean. Bilgune Feministak eta Andereak elkarteak deituta.

ERAKUSKETA

DURANGO

- » **'Hitzaren Itzalak'**. Imanol Larrinagaren margoak eta Juan Ramon Makuso, Aritz Gorrotxategi eta Pello Otxotekoren olerkiak. Ekainaren 28a bitartean, Arte eta Historia Musean.

ELORRIO

- » **Herriko elkarte eta kolektiboak**, ekainaren 7a arte, Iturrin.

ERMUA

- » **'Emakumeen ekarpenak ekonomiari: begibistakotik ikustezinera'**. Argazkiak. Ekainaren 7a arte, Lobiano kulturgunean. Emakumeak Aniztasunean elkartearen eskutik. Ermuko GKEen Partzuergoak eratuta.

ZORNOTZA

- » **Zelaietako tailerretako lanak (pinturak, grabatuak, argazkiak, zurezko lanak...)**, ekainaren 15a bitartean, Zelaieta zentroan.

IKASTAROK

DURANGO

- » **'Jabetzen: sexualitatea lehenengo pertsonan'**, ekainaren 10ean,

18:00etatik 21:00etara, Andragunean (25 lagunendako lekua). Haurtzaindegi zerbitzua eskainiko dabe. Berdintasun Sailak eratuta.

- » **Euskara ikastaro trinkoak AEK-k eratuta**, ekainaren 22an hasi eta uztailaren 17a bitartean. 1., 2. eta 3. maila begira antolatutako eskolak bost ordukoak dira (denera, 100 ordu). Izena emoteko epea zabaldu dau AEK-Abarakek.

- » **Udaleku musikalak**, ekainaren 22tik uztailaren 3a arte. Izena emoteko azken eguna ekainaren 9a. Bartolome Ertzilla musika eskolak eratuta (94 603 00 35 / bertzilla@durango-udala.net). Era berean, **2009/10 ikasturterako matrikula epea be zabaldu dabe**, ekainaren 25a arte. Musika eskolako idazkaritzara jo leiteke.

ELORRIO

- » **Emakume eskolaren baitan 'Feminismoa: zer arraio da hori?'**, ekainaren 9, 16, 23 eta 30ean, 18:00etatik 20:00etara. Irakaslea, Saioa Hernandez. Aurrez eskatuz gero haurtzaindegia izango da. Izena Udaletxean emon behar da.

- » **Emakume eskola: 'El amor no es cuidado ni renuncia: nuevas relaciones de pareja'**, ekainaren 1, 8, 15, 22 eta 29an, 18:00etatik 20:00etara. Irakaslea, Norma Vázquez. Aurrez eskatuz gero, haurtzaindegia izango da. Izena emoteko Udaletxeko erregistroan.

JAIK

DURANGO

Euskal Astea

- » **Arrantzaren inguruko herri kirolak**, ekainaren 5ean, 09:30ean, Andra Mariko elizpean. San José Jesuitak ikastetxeak antolatuta.

- » **Opereta: 'Aitonaren urtebetetzea' Das Namenfest Operaren moldaketa (F.X. Süßmayr) (Bartolome Ertzillako orkestra, abesbatza eta kantu ikasleak eta Xaramel abesbatza)**, ekainaren 5ean eta 6an, 20:00etan, San Agustín kulturgunean.

- » **Berbalagun jaia: kalejira trikitilariekin**, ekainaren 6an, 12:00etan, Santa Ana plazatik Plateruena kafe antzokiraino. **Bazkaria**, 14:00etan, bertan (639 400 786). Udal Euskaltegiak, AEK-k, Hizkuntza Eskolak eta Berbaro euskara elkarteak eratuta.

- » **VIII. 'Euskal Astea' Zesta Punta Txapelketako finala**, ekainaren

6an, 18:30ean, Ezkurdi Jai Alai pilotalekuan.

» **Udabarriko kontzertua: Durangoko Orfeoia + Zeanuriko Abesbatza + Trapagaran Abesbatza**, ekainaren



6an, 20:15ean, Santa Ana elizan.

» **Julene Azpeitia lehiaketako sari banaketa**, ekainaren 7an, 12:00etan, San Agustin kulturgunean. **XXVII. Euskal Dantza Jaialdian: Iradier Salaberri (Lantziego) + Donostiako dantza taldea + Donibane Lohitzune dantza taldea + Agoitz dantza taldea**, 12:30ean, Andra Mariko elizpean. Tronperrik eratuta.

» **‘Ohean’ (Maskarada)**, ekainaren 11n, 20:00etan, San Agustin kulturgunean.



OTXANDIO

San Bernabe-Mekoleta

» **Gazte Itzal + Skovers**, ekainaren 5ean, 11:00etan. **Urduri dantza taldea** eta **Elvi sabeliztuna**, ekainaren 6an. **Ez Dok Hiru-Bikoteatroa** eta **IV. Bertso Baserri Bira**. Gauean **kontzertua: Balerdi Erdi + Bizardunak**.

» **Meza eta luntxa**, ekainaren 11n, 13:00ean. **Briska eta mus txapelketak**, 17:00etan.

JARDUNALDIA

ABADIÑO

» **‘Zer da jabekuntza?’**, ekainaren 11n, 17:00etan, Errota kultur etxean. Emakundek VI. Berdintasunerako Gunearen baitan.

LEHIAKETA

DURANGO

» **44. Durangoko Euskal Liburu eta Disko Azoka iragartzeko kartel lehiaketa**. Lanak Gerediagako egoitzara helarazo behar dira (Larrasoloeta 3, 48200-Durango). Azken eguna uztailaren 1a. Saria: 1.300 euro.

ELORRIO

» **Ferixa Nausikoak iragartzeko kartel lehiaketa**. Azken eguna ekainaren 30a, 14:00ak bitartean. Saria: 500 euro. Informazioa gehiagorako, Iturri kultur etxera jo leiteke (94 603 20 32).

ERMUA

» **Santiagoak iragartzeko kartel lehiaketa**. Aurkezteko azken eguna ekainaren 11. Saria: 600 euro.

MUSIKA

DURANGO

» **Sermond’s + AH + Trastorno**, ekainaren 5ean, 22:00etan, Plateruenean.

» **Perkusino kontzertua**, ekainaren 5ean, 17:00etan, Bartolome Ertzilla musika eskolan.

» **FaustoFestival09: Memoria de Pez + Insolventes + Cayado Bros&Galsene Warriors + Zain + Hilbete + Dj Gato**, ekainaren 6an, 18:30etik 01:30era, San Faustoko kiroldegian San Fausto Berriak eratuta.



» **Seiurte + Une**, ekainaren 6an, 22:00etan, Plateruenean.



Sweet Oblivion, ekainaren 11n.

ELORRIO

» **The Auamba’s + P.A.M.**, ekainaren 5ean, 22:30ean, Ateneoan.

ZINE-KLUBA

DURANGO

» **‘La sombra del poder’**, ekainaren 11n, 20:30ean, Zugaza Zineman.

ERMUA

» **‘Los lios de Gray’**, ekainaren 11n, 21:30ean, Lobiano kulturgunean.



Ekainaren 6an, 22:00etan

SEIURTE + UNE, PLATERUENeko OHOLTZAN

‘4’ deitu deutsien azken diskoa aurkeztuko dau gaur Plateruenean Seiurte talde berriztarak. Hamaika pop-rock kanta batu ditue, Berrizko Estoldetan estudioetan grabatu baina Madrilgo Mastering Mansion estudioetan masterizatu daben disko berri horretan. Taldekideen euren berbetan, hauxe da diskorik “seiurtekoena”. Taldeak 2006tik manager moduan izan dauen Baga-Biga diskoetxeagaz kaleratu dabe ‘4’ diskoa. Berriztarak ez eze, Une taldea be igongo da Plateruena kafe antzokiko oholatza gainera.

ZINEMA

DURANGO

Zugaza

Terminator. Salvation

Zuzendaria:

McG

barikua 5:

19:00 / 22:00

zapatua 6:

19:30 / 22:30

domeka 7:

19:30 / 22:30

astelehena 8: 19:00 / 22:00

martitzena 9: 20:00



Jonas Brothers. The 3D Concert

barikua 6: 17:00

zapatua 7: 17:00

ELORRIO

Arriola antzokia

Gran Torino

Zuzendaria:

Clint

Eastwood

zapatua 6:

22:30

domeka 7:

20:00

astelehena 8:

20:00



Umeendako zinema

Hannah Montana: la pelikula

zapatua 6: 18:30

domeka 7: 17:00

ZORNOTZA

Zornotza Aretoa

The International: Dinero en la Sombra

Zuzendaria:

Tom Tykwer

zapatua 6:

22:00

domeka 7:

20:00

astelehena 8:

20:00



BOTIKAK

Barikua, 5
09:00-09:00
• Etxebarria (Montebideo 2 - Durango)
09:00-22:00
• Bengoa (Jose Antonio Agirre 1 - Atxondo)
Zapatua, 6
09:00-09:00
• Mugica (Andra Mari 9 - Durango)
09:00-13:30 (*14:00)
• Balenciaga / Campillo / San Roma / Unamunzaga / Sagastizabal / De Diego (Durango)
• Bartolome (Gabiola 2 - Berriz)
• Irigoien (Bixente Kapanaga 3 - Iurreta)*
• Balenciaga (Berrio Otxoa 12 - Elorrio)*
Domeka, 7
09:00-09:00
• Irigoien (Bixente Kapanaga 3 - Iurreta)
09:00-22:00
• Deleuze Jiménez (Erreka 6 - Elorrio)
Astelehena, 8
09:00-09:00
• Balenciaga (Ezkurdi 8 - Durango)
Martitzena, 9
09:00-09:00
• Balenciaga (Ezkurdi 8 - Durango)
Eguaztena, 10
09:00-09:00
• De Diego (Intxaurrondo 22 - Durango)
09:00-22:00
• Bartolome (Gabiola 2 - Berriz)
Eguena, 11
09:00-09:00
• Etxebarria (Montebideo 2 - Durango)

TELEFONO INTERESGARRIAK

SOS Deiak.....112
DYA94 620 28 00
Gurutze Gorria94 681 09 49
Osakidetza94 600 72 00
Ertzaintza94 466 93 00
Suhiltzaileak112
GARRAIOAK
Euskotren.....902 54 32 10
Durango94 681 02 32
Bizkaibus94 448 40 80
Pesa902 10 12 10
Continental Auto945 286 466
TAXIAK
Abadiño946 814 470
Matiena606 459 988
Durango Geltokia.....946 811 001
Goco Tour946 202 860
Tele Taxi944 102 121
Radio Taxi Bizkaia ..944 269 026
Elorrio Geltokia946 820 040
J.L. Uriarte ..670 402 002
I. Estebez670 678 273
M Galeano.....946 582 854
Iurreta946 201 565

UDALAK
Abadiño94 621 55 30
Atxondo94 682 10 09
Berriz94 682 45 84
Durango94 603 00 00
Elorrio94 658 27 12
Garai94 681 63 93
Iurreta94 620 12 00
Izurtza94 681 35 48
Mallabia943 17 14 61
Mañaria94 681 89 98
Otxandio945 45 00 20
Zaldibar94 682 70 16
UDALTZAINGOA
Abadiño94 621 55 33
Berriz94 682 40 36
Durango94 603 00 10
Elorrio94 682 02 18
Iurreta94 620 08 88
BESTELAKOAK
Arriola94 658 31 92
San Agustin94 603 00 21
Zornotza Aretoa94 630 01 68
Gazte informazioa 94 603 00 30

Txanporta KE94 620 36 47
Errota KE94 466 94 16
Gorabide94 681 24 35
Alkoholiko Anonim. 94 415 07 51
Nekazal bulegoa94 681 15 20
Uren Partzuergoa ..94 681 74 86
Butanoa (UME).....94 681 08 77
Araztegia94 620 28 00
Foru Ogasuna.....94 681 07 42
INEM Durango94 681 12 96
Gizarte Segurantz 94 681 49 58
Epaitegiak.....94 603 00 51
KIROLDEGIAK
Igerilekua
Astola94 620 29 29
Igerilekua
Atxondo94 623 14 38
Berriz94 682 43 74
Durango
(Landako).....94 621 51 30
Durango
(Tabira)94 621 51 50
Elorrio94 682 10 27
Zaldibar94 682 73 74

EGURALDIA

14 18° BARIKUA
Temperatura nabarmen jaitsiko da. Giro nahasia izango dogu, zeru hodeitsu agertuko da. Tarteka zaparradak botako ditu eta trumoi zaparradak be izan daitezke. Haizeak mendebal-ipar-mendebaldetik joko dau.

13 20° ZAPATUA
Zaparradekin jarraituko dogu. Eguneko tenperatura altuenek bere horretan jarraituko dabe. Zaparradak botako ditu, bereziki eguerdi partean. Ipar-mendebaldeko haizeagaz jarraituko dogu.

10 21° DOMEKA

14 24° ASTELEHENA

10 25° MARTITZENA

Gremioen gida



Iturgintza



**Klimatizazioa
Kalefazioa
Iturgintza
Gasa**
Baimendun
Instalatzailerak

Arriandi, 16 - beheko 3. atea
Sakelekoa: 607 24 58 54
Faxa: 94 681 61 68
lurreta

Elektronika

URBASA Elektronikak

SALMENTA ETA KONPONKETA - TB - SONUA - BIDEA - IRATIA
KOMUNIKAZIOA - ANTENA KOLAKETAK - SATELITE BIDEZ - ALARMAK

Askatasun Etorbidea, 13
Tel.: 94 681 33 03
Durango

Panasonic



Mallabiena

M.Z.O ITURGINTZA - GASA - BEROGAILUA - ERAIKUNTZA, S.L.



Mallabiena industriagunea, 6
48215 lurreta • Tel.: 94 681 88 62
mallabiena@mallabiena.com

Argiztapena

MARKIEGI

Plateruen plaza 4, beheko
48200 Durango
Tel.: 94 620 35 20
94 620 21 76
Faxa: 94 681 56 95
markiegi@markiegi.com



Gas

CIAL-UME

gas-likidoen banaketa-etxea, s.l.

**GAS INSTALAZIOAK
ETXE OFIZIALA**

INSTALAZIOAK ETA ALDIZKAKO BERRIKUSTEAK

lurreta, 7 lurreta Komenji Kalea, 2-A DURANGO
Tel.: 94 681 0877 Tel.: 94 681 92 50



gremioen koordinazioa

BAINUGELAKO KOMUN ONTZIAK ETA BEROGAILUAK
AZULEJO, ZOLADURA, TEILA, ZERAMIKA ETA HORMIGOIA
ERAKUSKETA, SALMENTA ETA EZARPENAK

Lorazaintza



Mantenua eta Diseinua
Landaketa eta Inausketak
Ureztatze sistemak
Barrualde eta Kanpoaldea
Eskatu zure aurrekontua beldur barik
Santikurutz, 15 48200 DURANGO Myriam 696 463 086
Faxa: 944 668 853 Patxi 696 463 085

Eraikuntza

arlax

ERAIKUNTZA
IGELTSERITZA

Baserriak eta etxebizitzak
berrizatu eta zaharberritzea

Zuretzko egiturak

Barrualdea diseinatzea

Teilatu, fatxada, bainugelak, etab.

Antso Estegiz etorb. 11 - 3 B Sakelekoa: 615 77 91 70
DURANGO 605 77 03 57



188 PK.
48200 DURANGO
94 603 05 06
94 625 70 22 08
ubide@euskalnet.net

Iturgintza, gasa eta berokuntza

Barne Dekorazioa



Ibaizabal, 3A beheko, 1D
48200 Durango/ Bizkaia
T. 94 681 84 81
M. 600 267 373

a-metz
[barne]diseinua

Diseinua
Dekorazioa
Ideiak
Proiektuak - 3D
Legalizazioak
Erretelak
Gremioen
koordinazioa
Altxariak
Osagariak

www.a-metz.com

HEMEN AGERTU

**GURA BADOZU
DEITU**

94 621 79 02



Inaki Urien Madrazo
Industria Azpiegiturak

GASA - ITURGINTZA - BEROGAILUA

Sagasta (azuloa), Arribe Goiko baserria
48220 Abadiño (Bizkaia)
Mug.: 628 59 86 24

KIROLAK >



Argazkia: Kepa Aginako

Biharko izarrak, gaur eta Mallabian

Gaur, 20:00etatik aurrera, VI. Biharko Izarrak pilota txapelketako finala jokatuko dute Mallabiko pilotalekuan. Lehiakortasun handiko txapelketan –Euskal Herriko eta Errioxako 24 pilotari lehiatu dira– Durangaldeko pilotari bik finalera iristea lortu dute: Andoni Aldape mallabitarra eta Inaki Larrinaga elorriarrak. Biak atzelariak dira eta elkarren aurka ariko dira. Aldapek Gorka Esteban errioxarra du aurrelari, eta Larrinagak Eneko Yoldi uhartearra.

Txapelketaren txandakako sistema berezia dela-eta, Aldapek Yoldirekin jokatu zituen finalerdia, eta Larrinagak Estebanekin. Horrek esan nahi du finaleko lau protagonistek elkar oso ondo ezagutzen dutela; lehen eskutik ezagutzen dituzte aurkarien bertuteak zein gabeziak.

Atzean Larrinaga gehiago da kolpez, baina partidua asko luzatzen bada Aldapek fisiko hobea du. Aurrelariari dagokionez, Yoldi sasoi puntu ezin hobean dago: oraintsu GRAVNeke finalean 22-21 menderatu du Perez. Beste hainbat txapelketatan ere goian ibili da. Horrez gainera, badu beste bertute bat: irabaztailea da. Bere jokoa ez da ikusgarria, baina bai eraginkorra. Estebanek ez dizkio gauzak erraz jarriko. Biharko Izarrak txapelketa osoan etorkizun handiko pilotaria izan daitekeela erakutsi du.

Lau t'erdikoa, berotzeko
Aurretik lau t'erdiko finala jokatuko dute Inigo Aurtenetxe lezamarrak eta Ander Quina zumarragarrik. Jokamolde ezberdineko pilotariak dira. Aurtenetxek

gehiago jotzen du eta indarraren legea ezartzen saiatuko da; eskuin boleaz ere dotore moldatzen da. Quinak defentsa handia du eta ondo menderatzen du aireko jokoa, bai bolea bai gantxoa.

Mallabia I Pelota Elkartea gustura dago txapelketak eman duenarekin: "Oro har, partidua entreteginagarriak ikusi ditugu, eta pilotariak ikuskizuna eskaini dute", Carlos Garcia pilota elkarteko kidearen esanetan. ■ J.D.

Aldape mallabitarra eta Larrinaga elorriarra finalisten artean daude

24 Zalduak ez du mailaz igotzea lortu

Anbotopetok eta Zalduak derbiarekin itxi zuten aurtengo denboraldia. Zaldibartarrek igoera zuten jokoan; saiatu ziren, baina durangarrek irabazi zuten norgehiagoka.

25 Tabirakok mende erdia bete du

Atzo San Agustin kulturgunean egindako jai erraldoiagaz ospatu zuen Tabirakok 50. urteurrena. Aurten eta datorren urtean zehar hainbat ekitaldi egingo dituzte.

Zalduak puntu bategatik ez du mailaz igotzea lortu

Anbotopokoren kontrako derbia galdua, matematiketik bizkarra eman diote; puntu bakarraren aldeak Romori eman dio igoera



